

IRITZIA | 9

Lana arriskugarri
bihurtzen denean

GURE ELKARTEAK | 12-13

Ondarroako Alkoholiko
Anonimoak elkarte

GERTUTIK | 18-19

Udane Goikoetxea

EUSKARA OSAKIDETZAN | 20-21

Euskaraz bai sano!
kanpainaren bideoa



**JOSE MARI ARMENTIA
GIZA BALIABIDEETAKO
ZUZENDARIA**

EGINBEHARRAK ETA BETEKIZUNAK

Ibilbidean, ibiltariak bidea egiten du, eta bide eginez ailegatzen da helmugara. Horra hor hitz gaokoak: ibiltariarena, gurean, euskara zerbitzuak eta kazetaritza enpresak betetzen dutena; ibilbidearena, berriz, guztion artean bi hilean behin aurrera eramaten dugun argitalpen bide eta aldia; eta, azkenik, helmugarena, euskarak berak arlo sanitarioaren barne komunikazio eta lan tresna izateko zeharkatzen duen unibertsoa. Edonola ere, Euskara Zerbitzuko lankideon eginbearra baino gehiago da hauxe, eta, horren harira, gure betekizunen berri eman nahi dizuet.

Euskara Zerbitzuaren xedeak azpimarratzeko orduan, ezin dugu ahaztu Osakidetzan hiz-

kuntza normalkuntza kudeatu eta sustatzen duen zerbitzu korporatiboa garela. Era berean, normal-kuntzaren alde ezartzen diren planak abiarazten ahalegintzen gara (plangintzan, koordinazioan eta ebaluazioan), eta gure bezeroak zerbitzu erakundeak dira langileekin eta paziente/erabiltzaileekin batera eta aintzat hartuta.

Gure ikuspegitik, euskararen beharrianei erantzuteko gai den zerbitzu konprometitu eta ahaltsua izan nahi dugu, eta, hori nahikoa ez balitz bezala, herritarren hizkuntza eskubideen arloko eskakizunak bermatzen laguntzen dugu. Horretarako, kalitateko zerbitzua ematen dugu egunero, eta profesionaltasuna nahiz bezeroekiko konpromisoa eskaintzen ditugu.

Beraz, oso garrantzitsua da eginbearren eta betekizunen arteko aldea zein den zehaztea. Horrela, bada, profesional edo paziente euskaldunek euskarekiko eginbearra jarri ahal izango dute praktikan, hainbat arrazoibideren bitartez (hurbiltasuna, didaktika, jakintza, jarrera korporatiboa, identifikazioa...). Horrez gain, guk geuk, euskara teknikariok, aukera errealitate bihurtzeko erabilgunea bermatu behar dugu, ahalik eta eginbide onenean. Hain zuzen ere, hortxe dago kontzeptuen aldea.

Gure betekizuna da zuok euskarazko kalitateko zerbitzuak eta produktuak izatea. Bidea kalitatekoa izanez gero, ibiltariak berak gozoago egiten du ibilaldia. Horrelaxe izan dadila!

EKAINA

EMAKUNDE SARIA

Emakundek -Emakumearen Euskal Erakundeak- Berdintasunerako Emakunde Sariaren 2013ko edizioaren deialdia ireki du. Sariaren diru-kopuru gordina 14.400 eurokoa da eta hautagaiak aurkezteko epea 2013ko ekainaren 28an amaituko da.

Informazioa: <http://bit.ly/18Mf3TW>

UDA IKASTAROAK / PRESTAKUNTZA- ZIKLOA

Ekainaren 17tik irailaren 13ra "Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa" prestakuntza-zikloa egingo da UPV /EHUko Uda Ikastaroetako 32. ekitaldia - 25 Europar ikastaroen barruan.

Izena emateko epea: 2013ko maiatzaren 2tik aurrera .

Osakidetzako profesionalak %50eko deskontua izango dute prestakuntza-zikloko edozein jardueretako matrikula ordaintzeko.

LANORDUZ KANPOKO EUSKERA IKASTAROAK: 2013-2014 IKASTURTEA

Euskara ikastaroetan parte hartzeko onartuen eta baztertuen zerrendak :

- *Onartuen eta ukatuen behin-behineko ebazpena:* uztailaren lehen astean.
- *Ordu-kreditua agortuta dutenen zerrenda:* abuztuaren bigarren astean.
- *Onartuen eta ukatuen behin betiko ebazpena:* irailaren bigarren astean.

Tokia: Osakidetzaren web orrian eta zerbitzu-erakundeetan zabal-kunde handiena duten hedabideetan.

EKAINA-IRAILA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEKO MATRIKULAREN DIRU-LAGUNTZAK

Izena-emateko epea: 2013ko ekainaren 24tik irailaren 30era (biak barne).

Bete beharreko baldintzak:

- Osakidetzaren Euskal Osasun Zerbitzuko langile finkoa, interinoa, ordezkaria edo aldi-baterakoa izatea eta zerbitzu aktiboan, senideak zaintzeko eszedentzian edo zerbitzu berezietan egotea, 2013ko apirilaren 1etik irailaren 30ra bitartean.
- Aldi-baterako langileen kasuan, 2012ko urriaren 1etik 2013ko irailaren 30ra bitarteko epean guztira sei hilabetetik gora lan eginda egotea Osakidetzaren Euskal Osasun Zerbitzuan.
- Ikastaroa osorik bukatu eta dagokion bukaerako azterketa eginda edukitzea.

Argitaratzailea:

Osakidetza
 Araba kalea 45, 01006
 Vitoria-Gasteiz
 Tel.: 945 006 314
osatuberrri@osakidetza.net

Erredakzio kontseilua:

Xabier Arauzo
 Juan Elorriaga

Euskara zuzentzaileak:

Juan Elorriaga
 EMUN lana euskalduntzeko
 kooperatiba

Koordinatzailea:

Arteman Komunikazioa

Tirada:

7.000 ale

Lege gordailua:

ISSN 2254-450X

Diseinua eta maketazioa:

Arteman Komunikazioa

Argazkiak:

Arteman/Xabi Rezabal

Inprimategia:

Gertu (Oñati)

Osatuberrin parte hartu nahi?

Zeu ere protagonista izan zaitzke aldizkarian. Atal hauetan parte hartzeko, idatzi osatuberrri@osakidetza.net helbidera.



2	AGENDA
4	JAKINBERRI: Azken berriak motzean
5 8	SAKONEAN  Praktika komunitatea
9	IRITZIA Lana arriskugarri bihurtzen denean
10 11	OSASUN URRATSAK Bularretik mintzora
12 13	GURE ELKARTEAK Ondarroako Alkoholiko Anonimoak elkartea
14 16	PLAZATIK  Donostiako Aquariuma
17	ZORTZIKO TXIKIAN Valetin Riaño
18 19	GERTUTIK Udane Goikoetxea
20 21	EUSKARA OSAKIDETZAN Euskaraz bai sano! kanpainaren bideoa
22 23	ATZERA BEGIRA Medikuen biografiak & Epidemiak
24 25	JARDUNALDIAK Erizaintzako eta X. Berrikuntza jardunaldiak
26	OSASUN-ZENTROAN Lakua-Arriaga
27	TXAPELA BURUAN Lemoiz

AURKIBIDEA

EGOILIARREN ASTEA GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA



Maiatzeko bigarren astea egoiliarren astea izan zen Gurutzetan. Hasteko, astelehenean, hilaren 13an, heziketako espezialistek harre-
ra egin zieten BAME berriei ekitaldi aretoan. Ongietorria emateko bildu ziren: Gregorio Achutegi zuzendari kudeatzailea, Alberto Olaizola zuzendari medikoa, Jesus Moran doktorea eta Irakaskuntza Unitateko burua, Fernando Uresandi Pneumologia Zerbitzuko mediku ondokoa eta Gotzon Iglesias Erradio-diagnostiko Zerbitzuko mediku egoiliarra.

Orotara, 86 mediku egoiliarrek jardungo dute prestakuntza osatzen Ospitalean, eta horietatik %70 emakumeak dira; espezialitate eskatuena, berriz, Anestesia, Birgaitzea eta Pediatria dira.



INMIGRAZIOA ETA INTERKULTURALITATEA IKASTAROA

Euskal Autonomia Erkidegoa, pertsona immi-
granteen presentzia gure inguruneari kultura
aniztasuna dakarkion begi-bistako errealita-
tea da.

Batetik, gure profesionalak migrazio-feno-
menoari buruz sensibilizatzeko eta, bestetik,
atzeritik etorritako biztanleria immigran-
tearen inguruko ezagutza areagotzea eta
hobetzea ahalbidetuko zien gako orokorrak
eskaintzeko helburuarekin, Bilbo Eskualdeak
eta BILTZENek (Gizarteratzea eta Kulturarteko
Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuarekin) egoera
horri, ikuspegi integral, kulturen arteko eta
integratzaile, ekiteko prestakuntza jardun-
aldi bi antolatu zituzten, elkarren eskutik.

Mesedeak-Saralegi, Errekalde, Deustu-
Arangoiti, Alde Zaharra, Bolueta-Sagarmina-
ga, Basurtu-Altamira, Santutxu-Solokoetxe
eta Begoñako Osasun-zentroetako lankideek
parte hartuko zuten maiatzaren 21ean eta
28an egin ziren prestakuntza ekintzotan.

EAEN KONTSUMITZEN DIREN DROGAK GEROZ ETA NAHA- SIAGO DAUDE

Ai Laket! elkartek hamabi substantzia berri
atzeman ditu (printzipio aktiboak, nahastai-
leak eta diluitzaileak) pasa den urtean EAEn
aztertu zituen 1.189 laginetan.

Miren Ugarte elkarteko presidentek
Donostian emandako prentsaurreko batean
azaldu duenez, "drogen legez kanpoko mer-
katua etengabe ari da aldatzen, pauso bat
aurretik doa"; hori dela eta, "potentzialki
arriskutsuak diren substantziak garaiz antze-
mateko sistemak indartzeko" eskatu du.

Ai Laket!! elkartek, Euskal Herriko Uni-
bertsitateko Kimika Organikoko departamen-
tuarekin batera, EAEko jai, jaialdi eta gazte
lokaletan jasotako 1.189 lagin aztertu ditu,
eta horri esker aurkitu dituzte 12 substantzia
berriak.

Era berean, "ketaminaren adulterazio
maila altua" azpimarratu du, hori frogatzeko
aztertutako laginen %55 adulteratuta zegoen
garbitasun gradua galtzera aldera. Kokaina-
ren kasuan, levasimolaz, parasitoen kontra
animalietan erabiltzen den produktuaz, ari
dira nahasten saltzaileak "kasu gehienetan".

"2011n hirutik batek soilik zuen levasi-
mola, baina urtebete geroago lautik hirutan
antzeaman dugu", azaldu dute elkartekoek.



ERDITZEAN ANALGESIA ERABILTZEARI BURUZKO INFORMAZIO SAIOA HAURDUNENTZAT



Haurdun dauden emakumeentzat nagusiki,
7 hilabeteko haurdunaldia dutenentzat hain
zuzen, umea erditzean analgesia erabiltzeari
buruzko lehenengo informazio saioa izan zen
hilaren 7koa.

150 emakumek baino gehiagok jarraitu
zuten hitzaldia, eta helburua anestesia epi-
durala azaltzea izan zen: batetik, teknikaren
gauzapena; horretarako, puntzioan gaixoaren
kolaborazioak duen garrantzia zein arriskua
nabarmentzea, bestetik arrisku egoeran dau-
den gaixo posiblei ohartaraztea. Informazio
hori guztia emakumeei jakinarazi zitzaizen
analgesia epiduralaren teknikari buruzko bi-
deo bat eta informazio liburuxka bat erabiliz.

Horiek horrela, lehenengo aldirik, Ospitale-
ko anestesioleko teknika bati buruz, hots,
epiduralari buruz, emakume haurdunari zuden-
tako halako hitzaldi bat izan zen hizpide.
Teknika hori erditzean %90etan erabiltzen da,
eta erditzean sortzen den antsietatearen eta
minaren aurrean organismoak duen eran-
tzuna murrizten du. Ondorioak ondorio, on
egiten die bai haurrari bai amari.

BOTIKEN KOORDAINKETA UZ- TAILAREN HASIERAN EZARRIKO DUTE EUSKADIN

Botiken koordainketa uztaillaren hasieran
hasiko da aplikatzen EAEn. Euskal Autonomia
Erkidegoko herritarrek botikak ordaintzen
hasiko dira beraien errenta aitortzen
arabera. Salbuespen gisa, erretiratuek nahiz
diru-laguntzarik gabe geratu diren langabeek
ez dute ordaindu behar.

Madriletik agindutako neurria iragan
uztailetik dago indarrean Espainia osoan; Eus-
kal Autonomia Erkidegoa, ordea, aplikatzen
hasiko den azken erkidegoa izango da, eta
Auzitegi Konstituzionalaren aginduz izango
da hori.



JOSE MARI ARMENTIA OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA

Aurkeztu zure burua...

Izatez aretxabaletarra naiz eta azken 12 urteotan Gasteizen bizi naiz. Ekonomia ikasketak egin nituen eta azken urteetan kudeaketa lanetan ibili naiz erakunde publiko zein enpresa pribatuetan: kulturean, industrian, marketinean eta baita aholkularitzan ere ibilia naiz.

Zer erronka da Osakidetza Giza Baliabideetako zuzendari izatea?

Handia. Izan ere, Osakidetza EAEko enpresa handiena da.

Kudeaketan aritzen garenontzat erronka handia da, ilusionagarria. Osakidetza beti izan da erreferentzia antolaketari dagokionez. Era berean, honakoa une zaila da Osakidetzarako ere bai, baina une zailtan suertatzen dira erronka nagusiak. Baliabide gehiago izan gabe, orain arteko lana hobeto egiten ikasi behar dugu, kudeaketa tresna eta ereduak eta antolakuntza kultura hobetuta.

Oso desberdin ikusten da Osaki-

Osakidetza Euskara Planaren ebaluazioa aurkeztu berri du. Azken urteotan erakundearen euskararen alde egindako lana eta berorrek jasotako emaitzak eman du ezagutzera. Bide handia egin da, baina asko dago oraindik egiteko. Euskararen alorra Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren (GGBB) ardura da, eta hain justu otsailtik berroren zuzendari den Jose Mari Armentia elkarrizketatzeko parada izan dugu.



detza eta Giza Baliabideen departamendua kanpotik eta barrutik?

Hona etorri aurretik ez nekien zer aurkituko nuen. Gerora ikusi dut dimentsio erraldoiko antolakuntza dela, profesional pila batekin, bokaziozko profesionalak gainera, konprometituta eguneroko lanarekin. Langileen jarrera hori balio handikoa da.

Konplexutasun oso handiko enpresa da, ezta?

Bai, baditugu erakunde eta zentro ezberdinak, ospitaleak, lehen mailako arretako zentroak, laborategiak, zerbitzu zentralak... Prozesuak eta kudeaketa erremintak komunean jarri behar ditugu, izan ere, korporazio publiko zein pribatu askotan gertatzen den bezala, oreka ezegonkorra bizi dugu: zein neurritan izan behar ote dugun korporatibo eta zein neurritan autonomo.

Zenbat langilez ari gara?

Plantilla estrukturala 25.816 pertsonen osatzen dute, baina aldirizkoak gehituta 30.000 izan gaitzke.

Nola aurkitu duzu GGBBen departamendua?

Ez GGBBen departamendua soilik, kudeaketari dagokionez Osakidetza osoa maila on-onean dago. Enpresa pribatuarekin antze-

KUDEAKETAN ESKARMENTUA

Jose Mari Armentiak urte asko darama lanean erakunde publiko zein pribatueta mota askotako kudeaketan lanean: kultura, industrian, marketingean, aholkularitzan...

kotasun handiak ditu eta kalitateari dagokionez, beharbada arlo pribatua baino aurreratuago dago.

“Langileek konpromiso izugarria dute Osakidetza proiektuarekin. Oso argi dute nola egin behar den zerbitzu publikoaren alde”.

Osakidetza beti izan da aitzindari EAEko beste erakunde publiko batzuen aurrean...

Bai, horren arrazoia da profesionalak hala nahi dutela; euren inplikazio eta konpromisoak eramatzen du organizazioa halako dinamiketara. Azpimarratzeko modukoa ere bada profesionalak etengabe hobetzeko eta prestatuta egoteko beharra barneratuta dutela. Horrek dinamika aberasgarriak sortarazten ditu, batez ere proiektu berriak proposatzen direlako eta esparru berrietara hedatzea ahalbideratzen delako.

Non ikusi dituzu ahultasunak?

Erronka da pixkanaka inizatiba guztiak norabide berean jartzea, baliabideak hobeto erabili nahian. Konturatuta gaude Osakidetza erakundeetan arlo antzekoetan gauza bertsuak egiten ari garela, nor bere aldetik. Guk Osakidetza

osotasunean ikusita, ahaleginak batu behar ditugu; eredu onena aukeratu eta gainerakoei berori ezarri.

Osakidetza iraganean askotan gertatu da hori; alegia, organizazio bakoitzak bere bidea zuela...

Bai, uste dut ordena jartzea komeni dela. Hala ere, beti esan ohi dut kontu formalek ez dituztela kontu ez formalek zapaldu behar. Hau da, erakunde askotan gertatzen da hilabeteen behin elkartzen direla. Baina, horrez gain, pasilloetan, kafe-orduak ... informazio eta komunikazio trukaketa handia ere izan ohi da. Azken hori ere benetako komunikazioa da eta ez da galdu behar. Horrekin esan nahi dut korporazio askotan uste bat egon ohi dela komunikazioa modu formalean bakarrik lantzeko, baina bestelako ohiturak alde batera uzten badira, informazioa hil egin daiteke. Horregatik oreka horri eustearen aldekoa naiz. Hortxe ere badaukagu erronkarik.

Zeintzuk dira une honetan oztopo handienak?

Bizi dugun egoera ekonomikoa kontuan izanda, baikorrak izan behar dugu eta ditugun aldeko faktoreak aprobetxatu behar ditugu: gure profesionalen barruko energia, ideia berriak eta hobekuntza proposamenak.



Lanaldia aldatu beharra dago?

Bertako profesionalak eguneroko esfortzuarekin sostengatzen eta mugitzen dute Osakidetza. Une latza bizi dugu eta guztiok, ardura-dunok eta langileek, eman behar dugu pausotxo bat gehiago, zerbitzu publiko hau sostengatzen laguntzen ari garela sinetsita.

Nola definituko zenuke Osakidetza-zako eta GGBBetako langilea? Prestatua, saiatua...?

Batez ere konprometitua. Langileek konpromiso izugarria dute Osakidetzaren proiektuarekin.

Azken urteotan GGBBetako hainbat alor prozesuen bidez kudeatzen zabilzate, eta gainera kanpo-zertifikazioak jasota...

Bai, kalitate arloan izugarri aurreratu da Osakidetzan, enpresa pribatu askotan baino gehiago; kultura hori barneratuta dago.

Seguruenik zu sartu orduko plan estrategiko bat definituta egongo zen. Goizegi da zure ukitua emateko?

Sailburuak legealdi honetarako jarritako lerro estrategikoak gogoan izanda egingo dugu bidea. GGBBren ikuspegitik, partaidetza bultzatzea izango da arloetako bat, langilea osotasun gisa hartzearekin batera –profesional eta pertsona gisa–. Halaber, hizkuntza nor-

malkuntzari bultzada nabarmena emango zaio, eta baita profesionalen artean prebentzioa eta segurtasuna egokiro jorratzeari ere.

Euskara Planaren ebaluazioaren emaitzak aurkeztu berri dituzue. Zein ondorio nagusi nabarmen-duko zenituzke?

Osakidetzan euskara aurrera doa pixkanaka. Batez ere Irudi eta komunikazioan eta Hizkuntza Eskakizunetan egin da aurrera, bertan jarri genuelako baliabide gehien. Hala ere, asko daukagu hobetzeko. Lehentasuna dute kanpo harremanek, azken batean Osakidetzak zerbitzu asistentziala hortxe ematen baitu. Halaber, hizkuntza-normalkuntza estrategian eta eguneroko kudeaketan txertatu beharra dugu, gainerako arloen parean, normaltasunez. Jakina, zuzendariek lidergoa erakutsi behar dute; euskararen normalkuntza zeharkakotasunez landu. Erronka handia dugu hor.

Lorpen handienak hizkuntza eskakizun atalarekin lotuta daude?

Hizkuntza normalkuntzaren planifikazioa beste euskal administrazioetan baino beranduago etorri zela Osakidetzara. Hori kontuan izanda, garbi ikusten dut hizkuntza eskakizunen arloan aurrerapauso handia egin dugula. Lautik batek dauka lan-

PROFESIONALEN JARRERA

Egoera ekonomikoa zaila bada ere, Armentia baikor da profesionalen Osakidetza-zako zerbitzu publikoaren alde duten jarrerarekin.

postuko euskara maila egiaztatuta. Horrek irakurketa positiboa dauka.

“Zuzendaritzatik lidergoa behar da antolamenduko arlo guztietan euskara presente egon dadin”.

Identifikazioa lantzen ari zarete...

Bai, 2012 bukaeran jarri zen martxan ‘Euskaraz Bai Sano!’ izeneko proiektua, gure profesionalen modu boluntarioan pauso bat aurrera emanda, zerbitzua euskaraz eman ahal eta nahi dutela jakin dezaten erabiltzaileek.

Hurrengo planaren zirriborroekin hasiak zarete?

Lehenik eta behin euskara planaren ebaluazioan agertzen diren hobekuntza puntuak lantzen hasi behar gara. Eta, horrez gain, Euskara Zerbitzuarekin zirriborro bat lantzen hasiak gara hurrengo plana zehaztuz joateko. Langileei aurkeztu nahi diegu lehenik eta behin, eta horretarako, sindikatuekin elkartzeko gara laster honen guztiaren berri emateko.



EUSKARA PLANAREN EBALUAZIOA 2005-2012

Osakidetzako Zuzendaritzak beti izan du argi hizkuntza ofizial biak erabiltzeak honako abantaila hauek dituela: zerbitzu asistentzialen kalitatea hobetzea eta hizkuntza eskubideak errespetatzea.

Egindako ebaluazioak bost puntu nagusi aztertu ditu: Irudi eta komunikazioa, Kanpo harremanak, Barne harremanak, Hizkuntza kudeaketa eta Hizkuntza eskakizunak. Kanpoko enpresa batek egin du ebaluazioa, eta horren ostean Osakidetzako Zuzendaritzak kontrastea egin du. Ebaluazioa egiteko, behaketa lanak, inkestak, telefono deiak, elkarrizketak eta talde fokalak baliatu izan dituzte, besteak beste.

Ondorioei dagokienez, euskararen normalizazioaren alorrean 2008ko ebaluaziotik pixkanaka aurrera egin da eta aurrerapen handienak hizkuntza eskakizunen atalari eta erakundeko errotulazio finkoari dagozkie. Gutxien garatu den arloa barne harremanena da. Eta gehiago aurreratu da Erakunde Sanitario Integratuetan ospitaleetan baino.

Irudi eta komunikazioaren alorrean, helburuak betetzen ari dira, baina erabiltzaileen harreraren horiek %50 eskasekoak dira. Errotulazioan eta paper gauzetan oso zabaldua dago euskararen era-

bilera. Webguneetako elementu estatikoetan elebitasuna bermatuta dago, baina ez hainbeste informazio dinamiko eta erantsitako dokumentuetan. Azkenik, sare sozialetan eta ekitaldi publikoetan euskararen erabilera apala da.

Kanpo harremanen esparruan, asko dago hobetzeko. Gabeziarik handiena asistentziako dokumentuetan dago. Pazientee-kiko harremanetan, aldiz, euskararen erabilera lotuago dago profesionalaren nahiarekin jarraibide argiekin baino.

Barne harremanei dagokienez, aurrerapen handiena giza baliabideen atalean egin dute, baina ez horrenbeste baliabide informatiko eta kudeaketa sistematan. Laneko hizkuntza paisaiarik gehiena gaztelaniaz dago eta ez da aurrera egin langileen hizkuntza aukeran. Hala ere, profesional askok hartu dute parte euskaraz gaitu eta trebatzeko ikastaroetan.

Hizkuntza kudeaketa ere izan da aztergai eta berorrek helburuen betetze mailarik handienetakoa lortu du. Azaldutakoaren arabera, erakunde askotako zuzendaritzek ez dute garatu lidergo argirik eta zeharkakotasun falta nabaria da. Gainera, zenbait euskaraz batzordek ez diote planari ekarpenik egin.

EUSKARA ZERBITZUA

Euskara Planaren ebaluazioa egiteko Giza Baliabideetako Zuzendaritza Osakidetzako Euskara Zerbitzuarekin (argazkian) elkarlanean aritu da.



EVALUACIÓN DEL PLAN DE EUSKERA

Osakidetza ha presentado recientemente la evaluación del Plan de Euskera desarrollado entre 2005 y 2012. El plan se ha centrado en los siguientes aspectos principales: Imagen y comunicación, Relaciones externas, Relaciones internas, Gestión del idioma y Exigencia sobre el idioma. La evaluación ha concluido que los mayores avances han tenido lugar en las áreas de exigencia sobre el idioma y en la rotulación permanente. El menor avance, en cambio, se ha dado en el ámbito de las relaciones internas. De la misma manera, han sido mayores los resultados obtenidos en las Organizaciones Sanitarias Integradas que en los hospitales.

Aprovechando la presentación de la evaluación del Plan de Euskera hemos querido conocer más de cerca al nuevo director de Recursos Humanos de la entidad y los planes que dicho departamento cuenta para los años venideros. Jose Mari Armentia ha destacado el gran potencial con el que cuenta Osakidetza gracias al compromiso de sus profesionales que nadan en la misma dirección para mejorar continuamente el servicio público de salud. Asimismo, el nuevo director de RRHH propone innovar en modelos de gestión para afrontar la crisis.



Agurtzane Ortiz Jauregi

*Psikiatra.
EHUko irakaslea eta ikertzailea.
Irakasleen gaietako eta Euskara
eta Eleaniztasuneko Dekanordea.
EHUko Medikuntza eta Odontolo-
giako Fakultatea.*

LANA ARRISKUGARRI BIHURTZEN DENEAN

Hara non bizitzaren aldi handi bat lanean dihardugun. Lana osasungarria dela diote gure nagusiek, batez ere gaur egun bizitzen ari garen garai hauetan, non lana duena aberatsa den. Hala ere, lanaren ezaugarri osasungarri hauek desagertu egiten dira hainbat egoera desberdinetan eta lana bera edo lanaren giroa gaitz bilakatzen da.

Eta pertsonok zer eskatzen diogu lanari? Oro har, lana interesgarria izan nahi dugu, baliabide, informazio eta botere nahikoa izan lana ondo egiteko eta soldata duina izan. Alabaina, badaude lanarekin pozik egoteko eragozpenak: lanean tentsio handiegi edo txikiegia izatea, lana desegokia izatea, nekatuta edo erreta egotea, eta lanaren giro desegokia edukitzea. Orduan bai, langilearen idealismoa, energia eta helburuei ekiteko interesa akitu, agortu egiten da. Guzti horren ondorio ditugu ez eraginkortasuna, apatia, frustrazioa eta gelditasuna. Une horretan lanak osasunean nahasmendu bat sortu duela esan genezake.

Gaixotasun profesionalak alde batera utzita, hau da, lan ingurunean izaten diren faktore jakin batzuek eragiten dituzten gaixotasunak kontutan hartu gabe, lanarekin erlazionatzen diren osasunaren nahasteek hainbat arrazoi izan ditzakete: lanaren gehiegizko edo gutxiegizko zama, lanik eza eta lanarekiko eta laneko harreman desegokiak, pertsonarteko giroa, besteak beste.

Lankideen arteko harremanek lanarekiko eraginkortasunean eta langilearen gogobetetzean eragin handia dute. Hori horrela izanik, langileen arteko harremanak hobetzea merezi du. Lan giro osasungarri batean pertsonarteko konfiantza eta errespetua dira gakoak, non onestasuna nagusi den. Horretarako ezinbestekoa da elkar ulertzea, hau da, bestearentzat garrantzitsua dena errespetatzea eta bestea aintzat hartzea, adeitasunez, norbere igurikapenak argitzea, konpromisoak betetzea, zintzotasuna eta

zuzentasuna adieraztea eta, gauzak txarto egin ditugunean, zintzo barkamena eskatzea. Gauzak ongi doazenean, bikain!, baina gatazkak egon egongo dira seguru. Orduan bai, inoiz baino gehiago, lasaitasuna eta afektua erabili behar ditugu.

Baina, hemen dugu, bada, pertsonarteko harremanetan, gaingitu gabeko irakasgaia. Milaka dira ager daitezkeen harreman motak, batzuk besteak baino egoekiagoak. Izan ere, agerian dagoen baino gehiagotan existitzen den harreman maltzur bat ere badugu, mobbinga edo laneko jazarpena, non alde aurretik deskribatu ditugun langileen arteko harreman egoki batean izan behar diren betebeharrak guztiak urratzen diren. Laneo jazarpena da pertsona batek edo pertsona talde batek, lanean, beste pertsona bati eragiten dion biolentzia psikologikoko egoera bat. Jazarpen egoera hori sistematikoa izaten da, gutxienez astean behin gertatzen ohi dena eta denbora luzean eta sei hilabete baino gehiagotan. (H. Leymann, 1992)

Egoera horrek ondorio larriak izaten ditu, hainbat mailatan agertu eta azter daitezkeenak:

- Kaltetutako langileari dago-kionez, maila biopsikosozialan, haren osasunaren maila guztietan
- Sare familiar eta sozialari dago-kionez, afektibitatean eta pertsonarteko harremanetan
- Lanaren antolakuntzari dago-kionez, lan-etekinetan, segurtasunean eta lan giroan.
- Komunitateari dago-kionez, egokitze ekonomikoak, sozialak...

Bidegabekeria honen aurrean ezin gara besoak gurutzatuta geratu, egoera horiek guztiak salatu beharrekoak dira.

Lana bai eta bizi ere bai.

BULARRETIK MINTZORA, KONTAKIZUNEN BIDEZ HAURDUNALDITIK UMEAREN GARAPENA ETA LOTURA AFECTIBOAK INDARTZEKO

ABUSU-LA PEÑAKO OSASUN-ZENTROAN 0 ETA 3 URTE BITARTEKO HAURREI ETA HORIEN GURASOEI ZUZENDUTAKO BULARRETIK MINTZORA PROIEKTUA LANTZEN ARI DIRA GALTZAGORRI ELKARTEAREN GIDARITZAPEAN. BILBO ETA ARRIGORRIAGAKO UDALERRIEK PARTEKATZEN DUTEN OSASUN-ZENTRO HORI IRAKURZALETASUNA ETA AHOZKO TRANSMISIOA LANTZEN AITZINDARIA DA.



Bularretik Mintzora Galtzagorri elkarteak 2007an abiarazitako ekimena da, haur txikien guraso eta hezitzaileei zuzenduta dagoena. Bere helburu nagusia da 0-6 urte tarteko umeengan irakurketa ohiturak sustatzea gurasoekin eta hezitzaileekin, haien ingurune naturalean: etxean, eskolan eta liburutegian. Berez Galtzagorri modu natural batean irakurtzeko, kontatzeko eta entzuteko ohitura sustatzea bilatzen du.

Ikasturtez ikasturte ekimena herri gehiagotan zabaltzen joan da, baina orain dela gutxira arte 3 eta 6 urte bitarteko adin tartean landu izan dute bakarrik. Kontua da Galtzagorri aspalditik zeukala 0 eta 3 urte bitartekoekin ere lantzeko asmoa eta, horretarako, azken aldian, hainbat saiakera egin izan ditu. Horrela, "Abusuko Liburutegiak anbulatorioan egiteko proiektu bat eskatu zuenean, Galtzagorri-tik Bularretik Mintzora egitasmoaren egokitzapen bat eskaini genion, hortik aurrera eta Biblioteka eta Abusu Sarearen ekimenez garatzen hasi ginen plangintza experimental hau", azaldu du Itziar Zubizarretak. Hala, osasun

-zentroko arduradunekin harremanetan jarri eta lortu dute haurdun dauden emakumeekin eta jaioberrieekin ere irakurtzeko, kontatzeko eta entzuteko ohitura sustatzen hastea.

Berez, liburutegiko arduradunen ekimena izan da proiektua, eta Abusu Sarean elkarteak finantzatzen du. Haurrek jaiotzen direnetik gauza asko behar dituzte modu egokian garatzeko: inguruarekin komunikatu, errealitatea pixkanaka ezagutu eta, batez ere, segurtasuna sentitu. Segurtasun hori ezinbestekoa zaio haurrari trebetasun kognitiboak garatzeko. Haurraren garapen integral horretan, lagungarri hoberenetakoa haur literaturaren erabilpena da, horrek errazten baitu heldua eta haurraren arteko komunikazioa, eta horrekin batera hizkuntza eta gainerako **trebetasun kognitiboen** garapena ere bai.

Horrekin lotuta, ume horien inguruko helduek ikasi beharko dute zeintzuk diren beraien eskuetan dauden baliabide egokienak haurrari ibilbide horretan laguntzeko, hizkuntza garatuz, haien emozioen alorrari tokia egin eta gara-

INPLIKATUTAKO LAN-TALDEA

Pediatra, emagin eta erizainek formazio berezia jaso dute Galtzagorri elkartearen eskutik.

pen intelektuala landu dezaten.

Galtzagorri elkarteko Itziar Zubizarretak diosku ume bati 'irakurtzen ematen' diogunean, "haurraren garapen intelektuala, emozionala, soziala eta, aldi berean, hizkuntzarena estimulatzen" ari garela.

AMAREN SABELAN DAGOENETIK

Bularretik Mintzora ekimena haurra amaren sabelean dagoen unetik hasten da, etapa bakoitzak bere premiak di-tuelako eta une guztiak garrantzitsuak direlako garapenean. "Lehenengo hilabete eta urteetan errealitatearekin harremanak izateko, haurrak dituen komunikatzeko tresna nagusiak zentzumenak, mugimendua, erritmoa eta jolasa dira. Eta tresna horiek aurkitzen ditu irakurketaren eta **kontaktaren** bidez heltzen zaizkion istorio txiki-tan", azaldu du Zubizarretak.

Lehen hilabeteetan sehaska kantuak abestuz, errima xume eta goxoak **xuxurlatuz**, irudi eder batzuk eskainiz. Gerora, 'irakurtzen ematea' da ipuin bat kontatzea edo poesia bat erabilita umearekin jolas bat egitea. Horrela,

poliki-poliki, irakurketa eta ipuina bera oinarritzko behar bilakatzen dira haurrarentzat, errealitatea ezagutzeko estimulua anitzak eskaintzen dizkiotelako bere zentzumen guztiak suspertuz.

ONURA UGARI UMEARENTZAT

Sehaska kanta bat abesterakoan, poesia bat irakurtzerakoan, ipuin bat kontatzerakoan edo marrazki bat erakustzerakoan, haurraren maila psikologiko eta afektibo berean komunikatzen ari gara, irudimenaren, fantasiaren, errealitatearen, keinuen eta **hitz joko**en mailan jartzen garelako.

Gainera, une horietan, 'irakurtzen ematen' diogunean, komunikazio afektibo bat sortzen da umearen eta helduaren artean, lotura afektiboa indartzeko erabakagarria dena. Eta ez hori bakarrik, lotura afektibo finko horrek umeari beldurrak uxatu eta segurtasuna ematen dio bere kabuz beste gauza batzuk jorratzeko eta ikasteko.

ABUSU-LA PEÑA, AITZINDARI

Abusu-La Peña Bilbo eta Arrigorriaga artean kokatutako auzoa da -bi udalerriek partekatzen dute- eta bertako osasun-zentroko arduradun Jaime Fernandezek azaldu digu zergatik den hangoa Bularretik Mintzora ekimena abiarazi duen Osakidetzako lehen osasun-zentroa. "Beti izan dut irakurzaleatasunaren aldeko jarrera eta pentsatuen osasun-zentroko **itxarongela** irakurtzeko leku egokia zela". Hala, bertara egunkariak ekartzen hasi ziren eta gerora Abusuko bibliotekan zaharkitutako liburuak osasun-zentrorara ekartzeko hitzarmena egin zuten.

Dinamika horretan murgilduta zeu dela, 2013aren hasieran bibliotekako arduradunak eta Galtzagorriko Itziar Zubizarretak proposamen berri bat jarri zuten Jaime Fernandez mahaiaren. "Proiektua ilusionagarria eta polita iruditu zitzaigun, eta baiezkoa eman genuen birritan pentsatu gabe", azaldu du Fernandezek.

Behin Abusu-La Peñako Osasun-zentroko arduradunak baiezkoa eman ostean, formazio saioak hasi zituzten guraso eta osasun profesionalen artean, bibliotekaren ekimenez. Ondoren, Abusuko Ikastola eta Juan Delmas eskola ekimen honetara batu ziren, auzo osoko elkarlana martxan jarrita.

PROIEKTU PILOTOA

Abusuko da Bularretik Mintzora proiektua ezarri duen Osakidetzako lehen osasun-zentroa. Argazkian, Abusuko Osasun-zentroko zuzendari Jaime Fernandez eta Galtzagorri elkarteko Itziar Zubizarreta.



GURASO ETA HEZITZAILEEN INPLIKAZIOA, EZINBESTEKOA

Lehenik eta behin, eskoletako irakasleei eta osasun-zentroko pediatrikari eta erizainei prestakuntza berezia eman zien Galtzagorri. Horren ostean, elkarteak Bularretik Mintzora proiektuko materiala eraman zuen osasun-zentrorara: CDa, liburua... Eta 0 eta 3 urte arteko gurasoei zuzendutako inkesta banatu zen, irakurketarekin lotutako ohiturei buruzkoa. Modu berean, erraztu egin dute ume horiek sei hilabete betetzekoan bibliotekako bazkide egin ahal izatea eta liburuak fisikoki ere ezagutzen hastea. Eta Galtzagorri adin tarte bakoitzeko errezetak prestatzen ditu guraso eta hezitzaileek praktikan jartzeko material (abesti, joko, ipuin...), **argibide** eta aholkuekin: jaiotzen denetik sei hilabetera bitartekoa, 6tik 12ra artekoa, 12tik 18ra artekoa eta 18 hilabetetik 24ra bitartekoa, besteak beste.

Galtzagorriko Itziar Zubizarretak oso argi dauka Bularretik Mintzora proiektuak ezarritako helburuak betetzeko ezinbestekoa dela, materiala banatzeaz gain, guraso eta hezitzaileei formazioa, errezetak eta argibideak ematea. "Orain dela urte batzuk zenbait ospitaleek guk prestatutako materiala bestelakorik gabe banatu zuten, baina bitarteko gehiago jarri ezean, helburu gutxi bete ziren". "Izan ere, profesionalen beraien eta umearen inguruan dauden helduen konpromisoa ezinbestekoa da, eta hori landu eta zaindu behar da", gehitu du.

EUSKARAREN GARRANTZIA

Bularretik Mintzora proiektuak ez du euskara helburu nagusi, baina irakurzaleatasuna eta trebetasun kogni-

tiboak garatzeko euskara erreminta nagusienetako bat da. "Helduaren eta umearen arteko une magiko hori lortzeko", Zubizarretaren esanetan. Eta, era berean, euskarari aukera bat emateaz gain, hizkuntza honetara modu atsegina eta errazean hurbiltzeko aukera ematen zaio familia askori. Gaur egun, gainera, familia horien artean jatorri oso desberdineko etorkinak ere badira.

PEDIATRIKO PROFESIOALEN HELBURUEKIN BAT

Bularretik Mintzora proiektu honetan 250 ume baino gehiagorekin lanean dabilta, bai eta haurdunaldiko laugarren hilabetetik aurrera dauden hainbat amarekin ere. Ume horiekin eta haurdun dauden ama horiekin kontsultan zuzenean lan egiten duten Nekane Aranak, Izaskun Calventek, Gloria Gutierrez de Teranek eta Selena Rubiok onartu digute oso gustura daudela, Galtzagorri gidatutako proiektua orain arte landutako helburuekin bat datorrelako eta "guraso eta umeen artean lotura sendoagoa lortzeko erreminta oso ona" delako ere bai. Eta familiek ere proiektuari oso harrera ona egiten diotela azaldu dute.

Argibide: *Aclaración, explicación, información.*

Hitz joko: *Juego de palabras.*

Itxarongela: *Sala de espera.*

Kontaketa: *Relato, narración.*

Trebetasun kognitibo: *Habilidad cognitiva.*

Xuxurlatu: *Susurrar.*

ONDARROAKO ALKOHOLIKO ANONIMOAK ELKARTEA

ALKOHOLISMOA GAIXOTASUNA DA, PERTSONAREN FAMILIA GIROAN ETA LAN GIROAN ERAGITEN DUEN GAIXOTASUNA. ALKOHOLIKO ANONIMOEN TALDEETAN ALKOHOLAREKIN ARAZOAK DITUZTEN PERTSONAK ELKARRI LAGUNTZEN EGITEN DUTE LAN. BIZKAIKO LEHENENGO ELKARTEA ONDARROAN SORTU ZUTEN ORAIN DELA 43 URTE. AZALDU DIGUTE OSO GARRANTZITSUA DELA NORBERA ALKOHOLIKOA DELA KONTURATU ETA, HORREZ GAIN, KONBENTZITZEA AURRERA EGIN AHAL IZATEKO ALKOHOLA BAT-BATEAN UTZI BEHAR DELA.



Ondarroako Alkoholiko Anonimoak elkarteak 43 urte bete ditu aurtengo maiatzaren 1ean. Bizkaiko lehena izan zen eta hari esker sortu ziren urte gutxira beste hainbat elkarte Bizkaian. Asteazken, ostiral eta larunbatetan egiten dituzte batzarrak. Ateak zabalik dituzte edozein herritako alkoholikoak hartu eta bizi duten borroka beraiekin konpartitzeko. Alkoholismoa gaixotasuna dela azpimarratzen dute eta alkoholari bizkarra emanda ondo bizitzea lortu dutela.

Orain dela 44 bat urte ondarrutar batek alkoholarekin arazo larriak zituen. Halako batean emazteak etxetik alde egin zuen sei seme-alabak hartuta. Orduan konturatu zen familia ondoan

behar zuela eta Donostian abade zen ezagun bati laguntza eskatuz. Hark Donostiako Alkoholiko Anonimoak taldera eraman zuen eta han, alkoholismoa zer zen lehenengoz entzun zuenean, konbentzitu zen alkoholikoa zela. Gerora, Ondarroara bueltatu eta udalak utzitako lokal batean hasi zen lanean beste bi gaixorekin batera.

Batzarrak larunbatetan egiten zituzten, eta babesa emateko Zumarragako zazpi-zortzi lagun etortzen ziren astero. Elkartearekin hastearrekin bat, alkoholarekin arazoak zituzten gaixoak artatzen zituen Javier Aizpiri medikua ezagutu zuten. Aizpiri Bilbo aldeko pazienteak Ondarroako elkartera bidaltzen hasi zen. 4-5 urtetan Bizkaian Alkoholiko Anonimoak

ALKOHOLAK ARAZO LARRIAK ERAGIN

Alkoholiko gehienek arazoak ahazteko ahaleginean edaten dute, baina alkoholak berak sortzen dizkie arazo larriak eta horiek guztiak konpontzeko ezintasuna ere.

“Arazo handia daukazula konturatu arte edaten jarraitzen duzu eta zuloan gero eta sakonago sartzen zara”.

elkarte bakarra izan zen Ondarroakoa eta bertara jende asko joaten zen Gernikatik, Bilbotik, Durangotik, Eibarretik, Elgoibarretik... “Larunbat batzuetan ehun bat lagun batzen ginen, larregi”, gogoratzen dute. Gerora, Bilbo, Barakaldo eta Sestaotik zetozenak elkarte propioa sortzera animatu eta lagundu zituzten.

EZ DAGO BURUZAGIRIK

Ondarroako elkartean, beste guztietan bezala, ez dago ez ardura-dunik ez bururik. Kideek ideiak edo proposamenak egiten dituzte eta guztien artean eztabaidatzen dute. Horrez gain, anonimotasuna eta sekretua bermatzeko, ezin da bertan entzundakoa kanpoan inori kontatu.

Ez dago alkoholikoen profil bakarra. Emakumeak zein gizonak daude. Badira asko edaten dutenak eta gutxi edan arren alkoholak arazoak sortarazten dizkietenak ere bai. Batzuek ez dute lanik, ezta bikotekiderik ere; baina beste askok, berriz, senar edo emaztea eta seme-alabak dituzte.

Elkarteko kideek jakinarazi digute oso garrantzitsua dela norbera alkoholikoa dela konturatu eta konbentzitzea. “Arazo handia daukazula konturatu arte edaten jarraitzen duzu eta zuloan gero eta sakonago sartzen zara”. Horregatik, taldera joan behar den kide berriaren profila apur bat ezagutzen dutenean, ahalegintzen dira egoera antzekoa duen beste kide batek egun horretan hitz egin dezan. “Zu, adibidez, edale txikia bazara eta asko edaten duen norbait entzuten baduzu, ez zara

“Alkoholari uzten diozunean, egunetik egunera hobeto sentitzen zara; alde batetik, fisikoki indartsuago, eta, bestetik, arazoak konpontzen hasten dira. Azken finean, hobeto bizi zarela konturatzen zara”.

identifikatuko; eta ondorioz, ez duzu pentsatuko edaria utzi behar duen alkoholikoa zarela”.

Alkoholak arazo asko sortzen ditu: fisikoak eta psikikoak. Alkoholiko batek alkohola hartzen duenean buruan zerbait esnatzen zaio, eta horrek galbidera eramatea du. Beste pertsona bat izatera pasatzen dira. Horrez gain, arazoak sortzen dira familia giroan eta lanean, baita arazo ekonomikoak ere.

Elkarteko kideek azaldu dute lehenengo tragoa dela saihestu beharrekoa. Hori da batzarretan esaten dutena: “Ez baduzu mozkortu nahi, ez edan lehenengo tragoa”. Izan ere, lehenengo tragoak mozkortzerako bidean jartzen

zaitu. Horregatik diote alkohola bat-batean utzi behar dela. Une hori gogorra izaten da, nerbioak aztoratu egiten dira eta lorik ere ez da egiten. Gainera, bizimodua aldatu behar izaten da, izan ere alkoholiko batek alkoholaren bueltan egiten du bizimodua: txikiteoa, kafea koparekin, garagarroak... Horrelakoetan, hasieran, nerbioak kontrolatzeko, mediku, psikologo edo psikiatra baten laguntza ondo etortzen da. Ondarroako elkartearen, adibidez, Aizpiri medikuarengana joateko aholkatzen zieten gaixoei.

Alkoholari uzten diozunean, egunetik egunera hobeto sentitzen zara; alde batetik, fisikoki indartsuago, eta, bestetik, familia arazoak konpontzen hasten dira, baita lanekoak ere, eta diru gehiago duzu poltsikoan... Azken finean, hobeto bizi zarela konturatzen zara”, azaldu digute elkarteko kideek.

Gaur egun asko edaten dela uste dute, baina alkoholaz gain beste droga batzuk ere hartzen direla, eta, agian, horregatik ez direla hainbeste mozkor ikusten kaletan.

Amaitzeko, azaldu dute alkoholikoa etxera joaten denean konturatzen dela arazo bat daukala.



Alcohólicos Anónimos

Plaza Berria 5. 3. Ezkerra
48080 BILBO. Posta kutxa: 772
Tel.: 944 150 751
e-mail: aa@aa-area16.org
www.alcoholicos-anonimos.org

Al-Anon. Alkoholikoen senitartekoen elkartea.

Alkohola neurri gabe kontsumitzeak jendeak uste baino gauza gehiago dakartza berekin. Tartean, alkoholikoen senitartekoen sufrimendua. Egoera horretan daudenen mina arintzeko, Al-Anon elkartea sortu zuten 1941ean. Mundu mailako elkartea da.
Tel.: 944 242 498

RECONOCER QUE SE TIENE UN PROBLEMA

El grupo de Ondarra de Alcohólicos Anónimos empezó su andadura hace 43 años. El grupo lo impulsó un ondarrutarra que de un día a otro se vio solo. Su mujer e hijos se marcharon de casa al no poder aguantar más la situación. El grupo se reunía todos los sábados. Durante varios años fue el único grupo existente en Bizkaia, y el doctor Javier Aizpiri, que trataba a enfermos con problemas de alcohol, acostumbraba a mandar a enfermos de la zona de Bilbao a la asociación de Ondarra.

En los grupos de Alcohólicos Anónimos no hay líderes ni responsables. Son los miembros los que proponen y dan ideas. Además, es necesario guardar el anonimato y el secreto. No se puede contar fuera lo que se oye en el grupo.

El alcohol crea muchos problemas, tanto familiares, laborales como económicos. Es primordial reconocer que se tiene un problema, porque en caso contrario se sigue bebiendo. Además, es muy importante no beber el primer trago, ya que el primer trago es el que abre el camino a emborracharse. Por eso, hay que dejar la bebida de golpe.



DONOSTIAKO AQUARIUMA, KANTAURI ITSASOARI ARRETAZ BEGIRATU ETA ITSASOTIK HARAGO DAGOENA EZAGUTZEKO GILTZA

DONOSTIAKO AQUARIUMA, ZALANTZARIK GABE, DONOSTIAKO HARRIBITXIETAKO BAT DA. ETA EZ HORI BAKARRIK, EUSKAL HERRIKO BIGARREN ERAKUSKETA GUNE BISITATUENA ERE BADA, GUGGENHEIM MUSEOAREN OSTEAN. HALA ERE, AKUARIO IKUSGARRIETATIK HARAGO, MUSEOA ERE BADU, ETA 1928AN ZABALDU ZENEAN JARRITAKO HELBURUEK INDARREAN JARRAITZEN DUTE: KANTAURI ITSASOKO ONDAREA ZAINTEA ETA EZAGUTZERA EMATEA.

Aquariuma Gipuzkoako Ozeanografia Elkartearen (GOE) ekimenez zabaldu zen, eta berau da Espainiako Estatuan sortutako natur zientzietako lehen museoa. Berorren aurrekaria izan zen Donostian 1914an antolatu zen itsasoarekin lotutako erakusketa eta bertan jarritako akuarioak harrera ezin hobea izan zuen.

XX. mendearen hasieran Arrantza Eskola abian jarri zuten, argitalpen zientifikoak egiten hasi ziren eta arrantzaleentzat zein beraien senitartekoentzat sorospen ekimenak antolatzen hasi ziren. Gerora, 1925ean, gaur egungo Aquariumaren egoitza eraikitzen hasi ziren arrantza portuaren muturrean, hain justu Pasealeku Berria inauguratu eta oso epe laburrera. Lanak, esan bezala, 1928an bukatu ziren. Sei urte beranduago, 1934an, Aquariumera eraman zuten 1878an Getarian harrapatutako balearen hezurdura, euskal historiarekin zuzenean lotutako lanbidea irudikatu eta Donostiako atrakzio honen sinbolo ere badena.

ERABERRITZE LAN EMANKORRAK

80ko hamarkadan hainbat eraberritze obra egin zituzten eta 90eko hamarkadan zehar, berriz, akuarioak nabarmen handitu zituzten. Tartean, hain ezagun egin den tunela ere eraiki zuten, bere baitan marrazoak eta bestelako itsas espezie ugari batzen dituen. Eraberritze lan horiek 2009an izan zuten bukaera, museoaren eta akuarioaren guneak, biak, balearen hezurduraren bitartez lotuz.

Bilakaera luze horren guztiaren emaitza da gaur egun halako arrakasta duen Aquariumean aurkitu



daitekeen eskaintza zabala. Museoa, esaterako, honako sailetan banatuta dago: Artea eta itsasoa, Itsas merkataritza, Haizea eta teknologia, Kaiko historiak, Kondaira eta tradizioa, Bale arrantza, Arrantza lanbide, Itsasoa etxean eta Bestelako begirada.

“Aquariuma Gipuzkoako Ozeanografia Elkartearen (GOE) ekimenez zabaldu zen, eta berau da Espainiako Estatuan sortutako natur zientzietako lehen museoa”.

ITSASOARI BEGIRA

Donostia eta donostiarrak beti bizi izan dira itsasora begira, eta hala kokatuta dago Aquariuma portuaren muturrean.

DONOSTIA ETA GIPUZKOA ITSASOAREKIN ELKARBIZITZAN

Hain zuzen ere, Aquariumak begirada berezia egiten dio itsasoak eta portuak Donostiari eman diotenari. Dela merkataritza, dela arrantza, dela arrauna, dela haizea... Donostia eta donostiarrak testuinguru horretan kokatzea eta nolakoak garen azaltzen saiatzea da berorren helburuetako bat.

Museoan bertan dago kokatuta, halaber, Itsas Historia eta Modelismo Saila. 1976an sortua, berorren kideak -70 bat lagun- hilean behin batzen dira museoan ontzien planoak trukatzeko. Euskal Herriarekin historikoki lotura izan duten ontziak egiten dituzte, eta horietako asko museo honetan ikusgai daude.

DATUA

4.000metro kuadro ditu
hiru solairutan
banatuta.**BALEA IKUR**

Getarian 1878an harrapatutako balearen hezurdurak museo eta akuariora, biak lotzen ditu. Balearen ehizatzea ez ezik, baleek euskaldunon historian izan duten garrantzia ere nabarmendu dute.

Museoa eta akuarioro esparrua, biak, Getarian 1878an harrapatutako balearen hezurdurak lotzen ditu. Bisitarien harrerarik handiena akuarioek dutenez, Aquariumeko bi gune nagusiak balearen bitartez harremanetan jarri dituzte. 2006tik 2008ra bitartean bale hezurdura ezaguna Sevillan izan zen, han garbitzeko tratamendu berezia ezarri zitzaion-eta.

BALE ARRANTZAREN GARRANTZIA GURE DNA-N

Bale hezurdurarekin jarraituta, museoak tarte berezia egiten dio Euskal Herriak baleekin lotuta izan duen historiari. Hala nola, Ternuarako espedizioak, arrantzarako ontziak eta baleekin egin

DATUA

10.000arrain eta 250
espezietik gora
dituzte.

daitezkeen produktuak erakutsiz, besteak beste. Euskal Herrikan kanpotik etorritako bisitarien arreta handia egiten diote esparru horri, baita txikienek ere, azken horiek ez dakite-eta zer nolako garrantzia izan duen baleen arrantzak gure historian eta kulturatan.

KANTAURI ITSASOKOAK ETA ESPEZIE TROPICALAK

Aquariumak 4.000 metro koadro inguru ditu eta hirur solairutan banatuta dago: beheko solairuan, akuario tropikalak; lehen solairuan, Kantauri itsasoko akuarioa eta museoak; eta bigarrenean, museoak.

Bi solairutan banatutako akuarioetan ur geza zein ur gaziko itsas espezie tropikalak, Kantauri itsasokoak, koralezko arrezifeak, mangladiak, ozeanoarioa, estuarioa eta beste batzuk dituzte. Guztira, 10.000 bat arrain eta 250 espezieetik gora.

MARRAZOAK ETA NEMO

Aquariumean tunela jarri eta marrazo zezenak ekarri zituztenetik biderkatu dira bisitak. Tunelak milioi eta erdi litro inguru ditu eta Aquariumean dauden 10.000 arrainetatik 6.000tik gora bertan daude, horien artean Txuri eta Kontxita marrazo zezenak. Marrazo bakoitzak 200 kilotik gora ditu eta bi metro eta erdiko luzera. Horiez gain, badira beste batzuk: katu-arrainak, arrano-berrugetak, itsas sugeak, itsas aingirak, dortokak, urraberuak... Beste akuario batzuetan kokatutako eta bisitari txikienek hain gustuko dituzten fikzioan isla duten Nemo eta Dory moduko arrainek ere arrakasta handia dute.

300.000 BISITARI URTERO

Atarian aipatu bezala, Aquariumak urtero 300.000 bisita izaten ditu. Horietatik 50.000 inguru umeak dira; bisitarien ia %30 Frantziakoak eta Iparraldekoak dira, gipuzkoarrak %20, bizkaitarrak %10-12, arabarrak eta nafarrak %5. Estatu mailako artean, berriz, katalanak (%2) eta madrildarrak (%3) dira nagusi; eta gutxiago dira ingeles, aleman eta italiarrak.

BARRUKO LANA, IKUSTEN EZ DENA

Bertan 35 lagunek egiten dute lan, eta harreragile, gida eta publiko-ara begira lanean daudenez gain, badaude bistan ez dauden beste asko: besteak beste, Biologia departamentuko bederatzi kide. Hauek ikertzen, bertan batutako espezieak zaintzen, mantenua egiten... aritzen dira. Izan ere, hain jatorri eta mota askotarikoak diren itsas bizidunek tratamendu bereziak behar dituzte: dela elikadura, uraren tenperatura, ingurunea eta beste alor asko. Zer esanik ez, arrain berri bat Aquariumera ekartzen duten bakoitzean epe batean isolatuta izaten dute, besteekin elkartu gabe, parasitorik baduen aztertzeko eta elikadura zein ingurune berrira ohitu dadin, bere eta gainontzeko arrainen onurarako. Bereizita izaten dituzte, halaber, jaiotako arrainak.

Informazio gehiago:

<http://www.aquariumss.com>

ADIN ETA JENDARTE GUZTIETARA ZUZENDUTA



Museoaren eta akuarioen bisita arruntaz gain, Aquariumak hainbat aukera eskaintzen ditu. Hala, bisita mota dezente daude aukeran: Marrazoak; Arrantza; Itsasoaren oroimena; Balea; Itsasoan barrena bidaiatuz; 7 ontzi, historia 1; Bisita urdina eta Arrainen artean lotan, besteak beste. Horrez gain, ozeanoarioan urperatzeko aukera ere badago, marrazokin zein beste arrainekin.

Aipatutako bisita horietako batzuk umeei zuzenduta daude, eta asko dira ikastetxeen bitartez zein bestela bertara joaten direnak. Itsasoko bizitzari buruz gehiago ikasteaz gain, ondo pasatzea ere dute helburu. Horra hor, adibidez, urtebetetze ospakizunak egiteko aukera.

Baina enpresa, elkarte eta bestelakoek ere gero eta gehiago erabiltzen dituzte Aquariumemeko instalazioak. Izan ere, inguruko artistei eta umeen tailerrei zuzendutako erakusketa aretoaz eta jatetxeaz gain, ekitaldietarako prestatutako beste hiru gune dituzte; eta horietako batek, 164 pertsonarentzat lekua duenak, benetako akuario tropikal erraldoia dauka aurrean. Mota askotako ekitaldiak egin izan dituzte: medikuntzari buruzko jardunaldiak, aurkezpenak... eta, bitxikeria moduan, orain gutxi ospatutako Miss Gitana Euskadi ekitaldia, besteak beste.



R
Resumen

AQUARIUM DE DONOSTIA, EL REINO MARINO A NUESTRO ALCANCE

No cabe duda de que el Aquarium de Donostia que no ha cumplido aún su centenario, es una de las joyas de Donostia y de que forma parte inseparable de la historia del puerto y de la ciudad. Así lo recoge tanto su andadura como la muestra que reúne su museo. Ese trabajo de divulgación de lo que el medio marino supone y aporta al humano es un referente, incluso, antes de la inauguración del Aquarium en 1928. De hecho, es el primer museo de ciencias naturales del Estado español.

Además del museo, el Aquarium siempre ha contado con acuarios, inicialmente compuestos por fauna del Cantábrico y, posteriormente, de mares tropicales. Además, ha ido ampliando estos espacios convirtiéndose en atracción para muchísimos visitantes tanto locales como foráneos, principalmente, franceses y vascos franceses.

El Aquarium, que cuenta, aproximadamente, con 4.000 metros cuadrados repartidos en tres plantas, acoge anualmente 300.000 visitantes, de los cuales, 50.000 son niños. Además de las visitas ordinarias, el Aquarium ofrece un sinfín de servicios a gusto del usuario.

VALENTIN RIAÑO | ZAINKETA ARINGARRIEN MEDIKUA GORLIZEN

VALENTIN RIAÑO BILBOTARRA DA SORTZEZ, BAINA ARMINTZAN BIZI DA ASPALDITIK ETA 22 URTE DARAMATZA GORLIZ OSPITALEAN LANEAN. HOGEI URTE BETE BERRI DITUEN ZAINKETA ARINGARRIEN BULTZATZAILE NAGUSIENETAKO BAT DUGU RIAÑO. GIZON LASAIA DA BERA, GORLIZ OSPITALEAK ETA ZAINKETA ARINGARRIEN ERRITMOAK ESKATZEN DUTEN MODUKOA ETA PAZIENTEEKIKO HURBILTASUNARI GARRANTZIA HANDIA EMATEN DIONA.

1 | Zein da zainketa aringarrien unitateak 20 urte betetzeko sekretua?

Lanaren alorrean zaharra egiten eta bizi izaten ikastea. Hastan Pedro Sagredo lankideak eta biok Uribe Kostako Jose Mari Ayarra psikiatraren laguntza izan genuen unitatea martxan jartzeko. Sagredo eta biok arduradunak bagara ere lantalde osoari zor zaio izandako bilakaera.

2 | Zer izan behar du zainketa aringarrietako profesional batek?

Lasaitasuna, sosegua, ilusioa, etorkizunera begiratzeko gaitasuna, lan egiteko gogoia, oztopoei aurre egiteko kemena... baina batez ere sosegua eta aurrera begiratzeko gaitasuna. Bestalde, gure esparruan ohikoa da tarteka beherakadak izatea, etengabe heriotzarekin lanean gaudelako. Horregatik, oso garrantzitsua da lantaldean bertan elkarri laguntzea eta alboan familia eta lagunarte sendoa izatea.

3 | Zer motatako tipologiak lantzen dituzue?

Gu barruko medikuak gara; hortaz, gaixo onkologikotik haragoaz. Minbizia duten pazienteak artatzeaz gain, **bihotzeko gutxiegitasuna** zein giltzurrunetakoa edo dementzia zein gibekeko zirrosia dutenak ere hartzen ditugu. Askok gaixotasun neurologikoak izan ohi dira, garatutako dementziak.

4 | Zer behar dute zuen pazienteek?

Alboan egotea, beraiei arreta egitea eta komunikazio izatea. Izan ere, komunikazioa ezinbestekoa da zainketa aringarrien esparruan.

5 | Eta zer da pazienteek eta familiakoek gehien baloratzen dutena?

Errespetua eta hurbiltasuna. Arlo teknikoari ez diote horren pa-

reko garrantzirik ematen. Horrez gain, ahalegintzen gara itxaron zerrendarik ez izaten eta 48 orduko bueltan ohea lortzen.

6 | Zertan aldatu da zuen unitatea 20 urte hauetan?

Denborarekin asko trebatu gara eta gaur egun askoz dinamikoagoak eta eraginkorragoak gara. Gainera, lan kopuru handiagoa dugu. Lehen, zerbitzuak erietxearen zentzu handiagoa zuen, irautearna. Hori ere aldatu da.

7 | Egia da Gorlizen lasaiago egiten duzuela lana?

Osakidetzako beste edozein langileren pareko denbora dugu lanak egiteko, baina ospitale hau beste batzuk baino lasaiagoa da, bai. Berez jarduera bakoitzak erritmo mota bat eskatzen du eta honakoa lasaiagoa da halabeharrez. Hain zuzen ere, hori da bertan ditugun pazienteek eta haien familiek behar dutena..

8 | Nola deskonektatzen duzu lanarekiko? Zein zaletasun dituzu?

Nire familia da lanetik deskonektatzen gehien laguntzen didana. Horrez gain, kirola beti izan da **kuttuna** niretzat. Iraganean bizikleta hartzen nuen eta gaur egun ibilaldi luzeak egiten ditut. Horrez gain, eraikinen maketak egiten ditut. Aita egur **tornularia** zen eta ama **brodatzailea**, haiengandik jaso dut eskulanezko zaletasuna.

“ZAINKETA ARINGARRIETAKO PROFESIONAL BATEK SOSEGUA ETA AURRERA BEGIRATZEKO GAITASUNA BEHAR DU”

Bihotzeko gutxiegitasun: *Insuficiencia cardiaca.*

Brodatzaile: *Bordador/a.*

Kuttun: *Favoritola, preferidola.*

Lagunarte: *Compañía, grupo de amigos.*

Tornulari: *Tornero/a.*

Zainketa aringarri: *Cuidado paliativo.*



“IRRATIA DA MAITEEN DUDAN MEDIOA, BADAUKA MAGIA BEREZIA” UDANE GOIKOETXEA

UDANE GOIKOETXEA DERIOZTARRAK KAZETARITZA IKASKETAK AUKERATU ZITUENEAN EZ ZEUKAN OSO ARGI ZER IZAN NAHI ZUEN. GAUR EGUN, BAINA, ATZERA BEGIRA JARRITA **BETE-BETEAN** ASMATU ZUELA DIO. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA MAITE DITU, ETA HORIEK LANTZEKO AUKERA EMAN DIO KAZETARITZAK. BIZKAIA IRRATIKO AHOTS EZAGUNA DA GOIKOETXEA.

KAZETARIA

Leioan egin zituen Kazetaritza ikasketak Goikoetxeak, eta karrerako lehenengo urtean Bizkaia Irratian lanean hasi zen.

Oso gazte zinela hasi zinen lanean Bizkaia Irratian. Hori da benetako unibertsitatea?

Azken batean, bai. Hamahiru urte pasa dira lanean hasi nintzenetik; gauza handia da biak batera egitea. Hala ere, aitortu behar da ez dela batere erraza biak egitea eta gainera ondo egitea. Bizkaieraz alfabetatutako pertsona bat behar zuten. Lerro bateko curriculum aurkeztu nuen eta proba batzuk egin zizkidaten; garai hartan, Kepa Uriarte zen Bizkaia Irratiko ardura-duna.

Irratian, telebistan, prentsa idatzian... kazetaritzako hainbat esparru landu dituzu.

Bai, hori ere oso aberasgarria da. Hala ere esaten da leku guztietan dagoena inon ere ez egoteko arriskuarekin dabilela beti. Zorionez, batetik eta bestetik ikasteko aukera izan dut. Urte batzuetan lan askorekin ibili naiz, baina kazetaritzaren alde guztiak ikusteko eta norberaren zirkulu profesionala zabaltzeko balio izan dit.

Nola definituko zenuke hedabide bakoitza?

Ez da erraza. Irratia nik maiteen dudan medioa da: badauka magia, inork ez zaitu ikusten, ahotsa da zure lan tresna... jendearengandik oso hurbil egoteko aukera ematen du. Telebistan agertzen zaren momentutik pertsonaia publikoa zara, eta horrek badu bere alde txarra. Prentsa idatziarekin beste pertsona batzuegana iristen zara; hala ere, idatzia niretzat estankoezia da. Irratian, egun bakoitza berria da, kapitulu bat bezala. Egun horretan hasi eta amaitu egiten den kapitulua.

“Goiztiar ibiltzeko diziplina behar da eta gauza askori ezetz esan, eta ezetz esaten jakin behar da”.

'Goizeko izarretan' saioa aurkeztu duzu. Gogorra da goizean goiz jaikitzea?



Bai, gogorra da. **Goiztiar** ibiltzeko diziplina behar da eta gauza askori ezetz esan, eta ezetz esaten jakin behar da. Gurpil horretan egoteak suposatzen du bizitza pribatuan muga batzuk jartzea eta lo orduak jatea... Zazpi urte izan ziren ordutegi horrekin eta nekatuta amaitu nuen. Dena dela, pribilegio bat izan da goizean goiz ibiltzea: irratia zabaldu, lehenengo albisteak norberak irakurri, eguna zelan datorren ikusi... zu zara irratia konposatzen hasten dena.

Kalean, ezagutzen zaituzte aho-tsarengatik?

Bai, nire harridurarako bai. Behin kafetegi batean nongoen eta aldamenekoak galdetu zidan ea ni irрати esataria nintzen. Jendeak zure ahotsa entzuten duenean modu batekoa edo bestekoa imajinatzen

zaitu, eta ikustean harritu egiten dira: "Zu zara!".

Euskara eta euskal kultura dituzu gustuko. Horiek lantzeko balio izan dizu irratia?

Euskalduna izanda, nire aukera da euskaraz bizitzea, lanean, lagun artean, familian... Alde horretatik, zalantza barik, euskara garrantzitsua da, eta horrekin batera euskal kultura. Hortaz, hori lanean landu ahal izatea oso garrantzitsua da. Zaletasuna ofizio bilakatu dut, modu batean.

Nolako garrantzia ematen diozu euskaraz lan egiteari?

Handia. Beste aukera batzuk ere izan ditut, beste hizkuntza batean lan egiteko, eta niretzat hizkuntza garrantzitsua da oso. Azkenean, guk geuk euskaldunok

euskaraz lanik egiten ez baldin badugu eta ez bagara euskaraz bizi, zer da euskara?.

Gainera, bizkaieraz egiten duzu!

Bai, Bizkaia Irratian denok egiten dugu bizkaieraz, eta hori da **ezaugarritzen** gaituena. Dena dela, euskara batua ere erabiltzen dut, hori delako elkar ulertzeko **samurrena**. Hala ere, zer izango litzateke euskara batua euskalkirik gabe? Saioaren arabera egiten dugu, albisteak emateko, adibidez, bizkaiera jasoa erabiltzen dugu, eta zorion-agurretan edo beste sail batzuetan nork bere herriko euskalkia erabiltzen du.

Kazetaritzak jende asko ezagutzeko aukera ematen du. Zein da elkarriketatatu duzun pertsona kuttunena?

Ez da ondo geratzearren, baina pertsona guztiek daukate zer edo zer. Hala ere, beti geratzen da norbait markatzen zaituena. Nire kasuan Xabier Lete izan zen. Niretzako bereziak izan da, gehien bete nauena. Barruraino heldu zitzaidan. Pertsona bereziak asko izan dira; adibidez, Boiseko alkate Dave Bieter, Bilbora etorri zenean. Desengainuak ere eraman ditut, baina seguru nirekin ere eraman-go zituztela.

EUSKAL KULTURA

Euskara eta euskal kultura maite ditu Goikoetxeak. Irratian horiek lantzeko aukera izan du.

Etorkizunean zer egitea gustatuko litzaizuke?

Urte asko egin ditut batera eta bestera lanean. Nire ustez espezializazioa da biderik egokiena. Zer-baitetan benetan jakin nahi baduzu, horretan ibiltzea da egokiena. Orduan, ni espezializazioan pentsatzen nabil: irratian? Ez dakit. Telebistan? Ez dakit... orain hausnarketarako epe bat hartuta daukat.

Bete-betea: *Plenamente, totalmente.*

Ezaugarritu: *Characterizar.*

Goiztiar: *Madrugador, temprano.*

Harridura: *Asombro, sorpresa, extrañeza.*

Hedabide: *Medio de difusión, medio de comunicación.*

Samur: *Fácil.*

EUSKARAZ BAI SANO!

KANPAINAREN BAITAN, OSAKIDETZAKO BILBO ESKUALDEAK BIDEOA EGIN DU



BILBO ESKUALDEKO OSASUN-ZENTROETAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO *EUSKARAZ BAI SANO!* KANPAINAREKIN LOTUTAKO BIDEOA EGIN DUTE. BERTAN ZENTROETAKO PROFESIALEEN PARTE-HARTZEAREN BITARTEZ OSASUN-ZENTROETAKO EGUNEROKO JARDUNA IRUDIKATZEN DA EUSKARAZ. EKIMENAREN HELBURUA DA ERABILTZAILLEENGANAKO ARRETAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITzea ETA BAI PROFESIALEI ETA BAI ERABILTZAILLEEI EUSKARAZ EGITEKO GONBITEA LUZATzea.

Euskaraz bai sano! erabiltzaileen eta profesionalen euskarazko komunikazioa errazteko identifikazio sistema berria da. Hala, Osakidetza barruko zerbitzu erakunde guztietako zerbitzu eta profesional elebidunak identifikatzeko programa martxan jarri dute. Eta une honetan programan sartzen den sentsibilizazio kanpaina garatzen dihardute eskualdeetako osasun-zentroetan nahiz ospitaleetan. Kartelak, triptikoak, pinak eta beste zenbait elementurekin batera, Bilbo Eskualdekoei hiru minutuko bideoa egitea bururatu zaie. Irudietan bertako profesionalak zein erabiltzaileak agertzen dira eta egunerokoan izaten diren egoera arruntak erakusten dituzte. Amaieran, zentro bakoitzeko ordezkari bana agertzen da, 30 la-

gun inguru, "Bizitza osasuntsuaren alde lanean ari garenek ere, euskaraz bai sano!" leloa azpimarratuz.

KOMUNIKAZIO EGOERA ERRAZAK

Bideoaren bitartez, euskara bultzatzearekin batera profesionalen eta erabiltzailearen arteko **gertutasuna** bilatu nahi izan da. Norberarentzat ezagunak diren profesionalak eguneroko lan jardunari lotutako komunikazio egoera errazetan ikusita, erabiltzaileei bidea eman nahi zaie euskaraz egiteko. Esaterako, bideoaren **pasarte** batean erabiltzaile bat medikuarenerako txanda hartzen ari da; beste batean, erizainak tentsioa hartzen dio; bi erizainek lanarekin lotutako elkarriketa dute, mediku eta erizainen arteko

ESKUALDEKO ZENTRO GUZTIAK

Bigarren eguneko grabazioan Bilbo Eskualdea osatzen duten 25 osasun-zentroetako ordezkariak hartu zuten parte; tarteka, Erronda kaleko oinezkoen zirkulazioa ere eten behar izan zuten.

“Ekimenaren helburua da erabiltzaileenganako arretan euskararen erabilera handitzea eta bai profesionali eta bai erabiltzaileei euskaraz egiteko gonbitea luzatzea”.

harremana... Ekimenaren bultzatzaile izan den Bilbo Eskualdeko euskara teknikari Leire Sagastizabalen esanetan, “erabiltzaileenganako hurbiltasuna adieraztea garrantzitsua da, eta horrexegatik, hain zuzen ere, eguneroko egoerak irudikatu ditugu”. Era berean, Sagastizabalek bideoaren ideia berri ere eman digu: “Osasun-zentroetan monitore informatiboak daudela aprobetxatuz, pentsatu genuen monitore horietan emateko moduko bideo bat Osakidetza eskualdeko langileen eskutik grabatu genezakeela”. Orain, bideoa zentroetako monitoretan ikus liteke, eta sarean ere zabal-kunde handia jaso du: propio dugun Ezagutza plataforman, sare sozialetan...

PROFESIALEEN PARTE-HARTzea

Proiektuan hainbat esparrutako profesionalak hartu dute parte: medikuek, pediatrek, erizainek, bezeroen arretarako unitateko langileek... Leire Sagastizabalek pro-



fesionalek egindako ahalegina nabarmendu du: “Eskualdeko profesionalen erantzuna oso ona izan da. Eskualdea osatzen duten 25 osasun-zentroetara deitu dugu parte-hartzera gonbidatuz eta guztiek eman digute baiezkua, guztiak daude ordezkatuta”. Grabazio prozesua uste baino gogorragoa izan zela kontatu digute, baina oso giro onean aritu direla eta emaitza horren frogarria dela. “3 ordutik gora eman dugu eta, langile batzuk tarteka urduri egon badira ere, merezi izan du”. Izan ere, langile horien inplikazioa borondatezkoa izan da eta, beraien zat aktore lanetan ibiltzea ohikoa ez den arren, oso lan ona egin dute. Horregatik, proiektuaren egileek jarritako intentzioaz gain, euskara eta osasuna elkartzeko begirada sortzea izan da baloratu dutena.

EUSKARAREN ‘e’, IDENTIFIKAZIO IKURRA

Bideoa euskaraz bai sano! kanpainaren barruan kokatzen den proiektu bat da. Kanpaina honetan erreferentzia gisa euskarazko zerbitzua identifikatzeko ‘e’ ikurra sortu dute. Ikur hori Osakidetzan erabiltzen diren hainbat **euskarritan** dago ikusgai: laneko **mantal** edo arropetan,

leiho eta mahaietako errotuluetan, sarrera, pasillo edo itxarongeletako karteletan... Beraiekin euskaraz jardun nahi bada, erabiltzaileek hala egin dezaten adieraziz. Horrela, “modu zuzen eta jatorrean **uztartu** nahi dira euskarazko komunikazioa eta osasuna edo jarduera osasungarriak. Hurbiltasun hori lagungarria dela uste dugu”.

OSASUNAREN ALDE LANEAN, BAITA EUSKARAZ ERE

Euskararen erabilera normalizatzeko planak aurrera egin ahal, Osakidetzan gero eta gehiago dira kalitatezko asistentzia zerbitzua euskaraz eman dezaketen profesionalak. Zentzu horretan profesionalak aurrerapausoak ematen jarraituko dute herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko. Jarduera sanitarioaren arrakastarako, beharrezkoak dira zerbitzua ematen duten profesionalen borondatea, baita erabiltzaileen jokabide **arduratsua** ere. Hori horrela, hauxe dio Leire Sagastizabalek: “Jendearen parte-hartzea eskertu nahi dugu, eta ekimenak arrakasta izatea eta, gurean, euskaraz gehiago egitea lortu gura genuke”.



EGOERA ARRUNTAK

Ikus-entzunezkoan jasotako esketxetan, osasun-zentroetan egunerokoan ematen diren egoerak islatu dituzte.

“Eskualdea osatzen duten 25 osasun-zentroetara deitu dugu parte-hartzera gonbidatuz eta guztiek eman digute baiezkua, guztiak daude ordezkatuta”.

Ikus-entzunezkoa Bilbo Eskualdean eta eskura dituzten sare sozialetan zabaltzen dihardute, eta orain arte jaso duen harrera oso ona izan da. “Ea beste eskualde batzuetan ere halakorik egitera animatzen diren; ondo legoke”.

Arduratsu: *Responsable, sensato.*

Euskarri: *Soporte.*

Gertutasun: *Cercanía.*

Mantal: *Bata.*

Pasarte: *Fragmento, pasaje.*

Uztartu: *Combinar, juntar, unir.*

MEDIKUEN BIOGRAFIAK



JUAN GONDRA
REZOLA

Euskal Herriko Medikuntzaren historiaren gaineko aditua. Bilboko Udaleko Osasun Sailean, Basurto Ospitalean eta Medikuntza Fakultatean jardun zuen, besteak beste.

ISAAC PUENTE AMESTOY

Isaac Bizkaiko Abanton jaio zen 1896. urtean; Batxilergoa Urduñako Jesuitetan hasi zen ikasten, baina 1907. urtean familia osoa Gasteizera joan zen eta hango institutuan bukatu behar izan zituen ziklo horretako ikasketak. Geroxeago, Medikuntzako ikasketa unibertsitarioak Santiagon eta Valladoliden egin zituen. **Harrezkero**, hilabete batzuk Errioxako Cirueñan mediku lanetan eman zituen 1919. urtean Maeztuko mediku izendatu zuten arte.

Maeztun topatu zuen bere bokazioa, herri medikuarena, hain zuzen ere. Gasteizera joateko aukera bazuen ere ez zen Maeztutik mugitu. Horrexe-gatik, “un médico rural” **ezizenaz** sinatu zituen hainbat artikulu. Bokazio lanean hain ondo ziharduen non bere ospea laster hedatu zen, eta, horren ondorioz, beste herri batzuetako gaixoak bere kontsultategira joaten hasi ziren.

Garai horietako medikuntzak ez zituen bere ardura guztiak asetzen eta, ohiko praktika txarrak salatu ondoren, irtenbideren baten bila “neohipokratismo” zeritzonera heldu zen eta mediku naturista bihurtu. Gehiegikeriaz behin baino gehiagotan aritu bazen ere ez zen dogmatiko hutsa izan, bai ordea beti al-

Garai horietako medikuntzak ez zituen bere ardura guztiak asetzen eta, irtenbideren baten bila “neohipokratismo” zeritzonera heldu zen eta mediku naturista bihurtu.

datzeko prest zegoen horietakoa. Izatez geldiezin zen, dena aztertze gogoz eta etengabe egiazen bila ibiltzen zenetakoa.

Sexu heziketak, eugenesiak eta neomalthusianismoak ere asko arduratu zuten; horiei buruzko liburu bat idatzi eta argitaratu zuen, eta, hori gutxi balitz, dohainik eskainitako korreoaren bidezko kontsultari eutsi zion.

GIZONA ETA HILKETA

Garaiera handikoa, indartsua, kirolzalea, pentsakorra, onbera, zintzoa, barazkijalea... Kalifikatzaile horiekin deskribatzen zuten bere adiskideek. 1919. urtean Luisa Garcia de Andoainekin ez-

konduta eta berarekin egongo zen azken egunera arte; artean familia osatzeko bi alaba izan zituen emaztearekin. Esandakoaren harira, Isaac ondo baino hobeto ezagutzeko bere esaldi bat dugu argibide: “Osasuna, askatasuna bezala, norberak lortu behar du”.

Bere bizitzaren azken urteetan (1931-1936) mediku lanetan jarraitu bazuen ere, anarkismoari eman zion lehentasuna: 1936ko uztailaren 18an, Francoren **matxinada** militarren egunean, Gasteizen zegoen eta, bere lagun batzuen antzera, ihes egiteko aukera izan zuen; halere, Maeztura itzuli zen. Hamar egun geroago guardia zibilek eta falangistek harrapatu zuten eta hilabete baten buruan hilda zegoen. Nonbait Pancorboren inguruetan hil zen, baina oraindik ez da argitu non, ezta non lurperatu zuten ere.

Isaac ondo ezagutzeko bere esaldi bat dugu argibide: “Osasuna, askatasuna bezala, norberak lortu behar du”.

EPIDEMIAK EUSKAL HERRIAN



IZURRITE ATLANTIKOA

AZKENA, BAINA GOGORRENA

Izurrite Beltzaren osteko bi mendetan, **izurritea** ohikoa bihurtu zen Europa osoan. Batzuetan, izurrite beltzarekin pasa zen bezala, herri askotara edo orokorretara hedatu zen, beste batzuetan, aldiz, soilik herri zehatz batzuetara edo **bakartutako** herrietara hedatu zen (noizean behin herri bakanean ere izan zen). Edonola ere, Euskal Herriko hainbeste izurriteren artean, azken izurritea nabarmendu zen, “Izurrite Atlantikoa”. Izan ere, gainontzeko izurrite guztiek Mediterraneotik zehar hona jo bazuten ere, azken hau Santanderretik zehar ailegatu zen; hori dela eta, “Atlantiko” izena jarri zioten. Izurrite Atlantikoa deskribatzen duten orduko pasarte batzuk bildu dira, eta beraiei esker kontatu ahal izan da Euskal Herriko hirietan gertatutakoa¹.

Badirudi 1596. urtearen bukaeran, Rodamundo ontzia Dunkerketik Santanderreko porturaino heldu zela jantziz beteta eta zamarekin batera izurritea ere ekarri zuela. Santander hiriak oso izurrite gogorra jaso zuen, harrezkero, Erresuma osotik zehar hedatu zen; bai-

na ez zuen aurrera egin uholde uniforme baten antzera, han-hemenka sakabanatuta baino. Euskal Herrian, besteak beste; Pasaiara 1597an heldu zen, Bilbora, ordea, urte bat geroago; Gasteizera eta Azkoitira 1599an zabaldu zen.

Nafarroako hegoaldean beste izurrite bat jasan zuten, baina Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, Izurrite Atlantikoa azkena izan zen. Bere **gomutak**, berriz, denbora luzez jarraitu zuen, baita izurritearen beldurrak ere.

Gainontzeko izurrite guztiek Mediterraneotik zehar hona jo bazuten ere, azken hau Santanderretik zehar ailegatu zen; hori dela eta, “Atlantiko” izena jarri zioten.

1.- *Badauzkagu batzuk gertatukoari buruz: Lekeitian, Seguran, Azkoitian, Oñatin, Plentzian, Portugaleten, Balmasedan, Gasteizen eta abarretan; baina pasarterik argienak hauek dira: Iruñekoa (Senosiain idazlariarena, Ignacio Baleztena (1946) *Relación de la Peste de esta Ciudad de Pamplona del año 1599. Píncipe de Viana* 22: 186-201); Pasaiakoa (Cruz Mundet, JR (1986) *Una epidemia de peste bubónica: Pasajes de San Juan 1597. Cuadernos de Historia y Geografía, Eusko Ikaskuntza*, 8.zk., 9-30 orr. *Eta Bilbokoa, Recherches sur les grandes épidémies dans le nord de l'Espagne à la fin du XVI siècle*, Bartolomé Bennassarena).*

Bakartuta: Aislado.
Ezizen: Apodo, sobrenombre.
Gomuta: Recuerdo.
Harrezkero: Desde entonces, a partir de entonces.
Izurrite: Peste.
Matxinada: Revuelta, motín.

JARDUNALDIAK

ERIZAINZAKO PRAKTIKA AURRERATUEI BURUZKO JARDUNALDIA

BRIGHTONEKO ANNIE CHELLEL ADITUAREN ESKUTIK



APIRILAREN 17AN, GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE ESKOLAK ANTOLATUTA, ERIZAINZAKO PRAKTIKA AURRERATUEI (EPA) BURUZKO JARDUNALDI BEREZIA EGIN ZUTEN OSAKIDETZAKO ERAKUNDE ZENTRALEKO ARETO NAGUSIAN. BRIGHTONEKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLE ETA ERIZAINZAKO PRAKTIKA AURRERATUEN ANNIE CHELLELE ADITUAK HITZALDI INTERESGARRIA EMAN ZUEN.



Erizaintzaren alorrean halako zeresana ematen ari den praktikari buruzko jardunaldi hau Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak aspaldian jorratzen diharduen nazioararteratze ekimenetako bat da. Programa horien bitartez lortu zuten Annie Chellel Gasteizera ekaritzea. Gai interesgarria izanda, profesional asko batu ziren ekitaldi aretoan, Ingalaterrako adituak esandakoak entzutera eta beraien kezka zein ekarpenak **plazaratzera**.

Annie Chellelek sarrera gaztelaniaz egin bazuen ere, ingelesa izan zuen komunikazio hizkuntza eta une oro bere esanak gaztelaniara itzuli zituzten. Hitzaldiak goiza hartu zuen, baina entzuleek ez zuten gaiari buruzko interesik galdu. Hain zuzen ere, Chellelek adibide esanguratsuak emateaz gain, umorea eta seriotasuna **tartekatu** zituen berbaldian.

INGALATERRAKO ESPERIENTZIA

Annie Chellel Brightoneko Erizaintza eta Emagin Unibertsitatean Erizaintza aurreratua masterrean irakaslea da, MSc Advanced Nurse Practitionerrekoa, hain zuzen ere. Hortik abiatuta, Ingalaterran erizaintza aurreratuan egingo bidea azaldu zuen.

Sarrera gisa, entzuleak kokatzeko asmoz, Ingalaterran erizainek duten prestakuntzari buruz eta Osasungintza

Zerbitzu Nazionalari buruz mintzatu zen. Hortik aurrera, EPAREN definizioa azaldu ostean, berorren kompetentziak zerrendatu zituen.

Praktika aurreratuetako erizaintza 1980an jaio zen, medikuen **gabeziaren** ondorioz. Hasieran batez ere larrialdietako zerbitzuetan eta familia-medikuen zentroetan aritu ziren lanean; eta, gero, osasungintzako esparru gehiagotara egin zuten salto. Horri gehitu behar zaio, azken aldian, gaixotasun kronikoak kudeatzeko eta ospitaleratzea ekiditeko ere baliatu izan dutela. EPAREN erizainek ezagutza oinarri dute, egoera berezietan erabakiak hartzeko autonomia handiagoa dute eta zeregin zabalagoak egiteko eskuduntza klinikoak ere badituzte. Horrez gain, ohitura daude beste profesional batzuekin ere lan egiten.

ERANTZUKIZUN HANDIKO PROFESIONALAK

Erizaintzako Nazioarteko kontseiluak 2009an EPA horrelaxe definitu zuen: Ondoren azaltzen diren trebetasunak lortu dituen erizaina da: aditua izatea ezagueraren oinarri bezala, kapaza izatea egoera konplexu eta bapatekoetan erabakiak momentuan hartzeko. Erizain honek jarduera profesional zabalago bat burutzeko kompetentzia kliniko beharrezkoak ditu; eta lan egi-

INGALATERRAKO ESPERIENTZIA

Brightoneko Annie Chellelek Erizaintzako Praktika Aurreratuei buruz azalpen oso argigarriak eman zituen.

“Praktika aurreratuetako erizaintza 1980an jaio zen, medikuen gabeziaren ondorioz”.

ten duen herrialde edo testuinguruari egokitutako erizaina da.

EPAREN lana pazienteen zuzeneko zaintzan oinarrituta badago ere, hezkuntza, ikerkuntza eta kudeaketa arloetan ere erantzukizunak izan ohi dituzte. Eta gai dira, halaber, gaixoen balorazioak eta azterketa fisikoak egiteko zein preskripzioak egiteko. Hala, medikuak ikusi gabe gaixoei alta emateko moduan daude.

EPAK lau arlo nagusi hartzen ditu bere gain: zainketa kliniko zuzenaren praktika, lidergoa eta lankidetzaren praktika, praktika eta kalitatearen hobekuntza etengabea eta, azkenik, garapen pertsonala eta besteen garapenerako laguntza.

Guzti honekin badaukagu EUEko Youtube kanalean Chellelek emandako jardunaldia hurrengo orrialdean <http://www.youtube.com/watch?v=i8WE77fNhn4>

ARABA ESKUALDEKO X. BERRIKUNTZA JARDUNALDIA

MAIATZAREN ERDIALDEAN GASTEIZKO LAKUA-ARRIAGA OSASUN-ZENTROAN ARABA ESKUALDEKO X. BERRIKUNTZA JARDUNALDIA EGIN ZUTEN. LAKUA-ARRIAGAKO ZENTROAK ARABA ESKUALDEKO PRESTAKUNTZARAKO EGOKITUTA DUEN ARETOAN EGIN ZITUZTEN HITZALDIAK. HAINBAT BERRIKUNTZA ETA IKERKETA AURKEZTEAZ GAIN, LEHEN MAILAKO ARRETAKO SERGIO MINUEK ERE PARTE HARTU ZUEN.



Araba Eskualdeko Berrikuntza Jardunaldiak klasiko bihurtu dira eta, azken urtean, gainera, hamargarren urteurrena borobilduz kokapena estreinatuta dute. Lakua-Arriaga Osasun-zentroaren goiko solairuko hitzaldi aretoa ia bete zuten Arabako hainbat eta hainbat profesionalak; horien artean Arabako Osasun ordezkaria, Osasun Publikoko zuzendariordea eta Osakidetza Erakunde Zentraleko hainbat ordezkari, besteak beste.

Lehenik eta behin, abian dauden hainbat berrikuntza proiektu aurkeztu zituzten; hala, Adolfo Delgado zuzendari medikua eta Arantza Ortiz erizaintzako zuzendaria Gutxiegitasun kardiakoaz aritu ziren; Maxi Gutierrez familiako medikuak eta Carmen Ruiz de Larrea pediatrik osasunean trebatzea gaia hartu zuten **hizpide**, eta Maite Perez familiako medikua EPOCeri buruz mintzatu zen. Bildutako profesional andanak interes handiz jarraitu zituzten aurkezpenak.

Atsedendiaren ostean, Andaluziako Osasun Publikoko Eskolako irakasle eta lehen arretako medikua den Sergio Minuek bi orduko berbaldia egin zuen, entzuleak erabat harrapatuta izan zituena. Minue oso hizlari ona da, eta profesional oso-oso **jantzia**. Lehen mailako arretari buruzko hausnarketa sakona egin zuen, hainbat kontzeptu

“Minue oso hizlari onada, eta profesional oso-oso jantzia. Lehen mailako arretari buruzko hausnarketa sakona egin zuen, hainbat kontzeptu eta aurreiritzi kolokan jarrita”.

eta aurreiritzi **kolokan** jarrita. Minue oso kritikoa da zentzu guztietan eta, andaluzek izan ohi duten umoreaz lagunduta, entzule guztien interesa, irribarrea eta erreakzioa lortu zuen, berak nahi zuen helbururako: lehen mailako arretaren berebiziko garrantzia aintzat hartzea, eta horrek praktikan ondorioak izatea. Hain zuzen ere, bere hitzaldiaren izenburuak (Lehen mailako arreta: pazienteak bideratzen edo txartelak banatzen?) erreferentzia zuzena egiten dio lehen mailako arretak osasungintzan duen garrantziari, bai eta profesionalak orain eta etorkizunean izan dezaketen erantzukizunari ere.

Minuek, jakina, lehen mailako arreta autobusa gidatzen ikusten du. Mi-

INTERES HANDIKO HITZALDIAK

Arabako Eskualdeko profesionalak adi jarraitu zituzten Sergio Minué, Maite Peña (argazkietan) eta beste hainbat hizlariren aurkezpenak.

nueren lanak jarraitu nahi dituenak *El Gerente De Mediado* izeneko bloga jarraitu dezake.

Jardunaldiari bukaera emateko, Araba Eskualdean azken urtean aurkeztutako berrikuntza eta ikerketa lanetatik (30 lan) aukeratutako hirurak eman zituzten ezagutzera: Gehiegizko medikazioa eta preskripzio desegokia adineko pertsonen artean, Sansomendin lan egiten duen Paz Perez familiako medikuaren eskutik; Ekografia lehen mailako arretan, Aranbizkarran jarduten duen Ana Maria Garay familiako medikuaren partetik eta, azkenik, Habanan (Kuba) jarduten duen Marina Domenjok landutako *Atzeraezineko hitzorduaren kudeaketa*.

Gabezi: *Carencia.*

Hizpide: *Tema de la conversación.*

Jantzi: *Formado, instruido, preparado.*

Kolokan jarri: *Poner en duda, cuestionar.*

Plazaratu: *Dar a conocer, hacer público.*

Tartekatu: *Intercalar.*

LAKUA-ARRIAGA OSASUN-ZENTROA

INSTALAZIO BERRIAN ETA ARRETA-ZERBITZUA HOBETUTA

GASTEIZKO AUZOA DA LAKUA-ARRIAGA. IAZKO URRIAN EGOITZA BERRIA INAUGURATU ZUTEN ETA, AZPIEGITURAREN BERRIKUNTZAREKIN BATERA, ARRETA-ZERBITZUA ERE HOBETU DUTE. ESPAZIOAREN ZABALTASUNAK ZERBITZUAREN HOBEKUNTZAN LAGUNDU DIE. ZENTROA ASTELEHENETIK OSTIRALERA 08:00ETATIK 20:00ETARA BITARTEAN EGOTEN DA ZABALIK. GUZTIRA 26 PROFESIONAL DABILTZA LANEAN, ETA INGURUKO 15.000TIK GORA BIZILAGUNI EMATEN DIE ZERBITZUA.

Gasteizko Lakua **barrutiaren** auzoetako bat da Lakua-Arriaga. Lehen mailako arreta eskaintzen die inguruko 15.874 bizilaguni; horietatik 2.596 haurrak dira eta 13.278 helduak. Dauden profesionalak 26 dira, eta familia-medikuak 11 dira, tartean pediatriak. Administrazioa ere handitu dute eta 6 pertsona ari dira lanean bertan. Erizainak 8, eta laguntzaile 1. Ez dago espezialistarik.

Osasun-zentrotik hurbil Umandi Ikastola dago. Hezkuntzaren eragina gertu izatea euskararen erabilera lagungarria dela adierazi dute. Apurka-apurka euskara ere anbulatorioan **oihartzun** handiago izaten hasi da eta bide horretan jarraitzeko itxaropena dute langileek.

EGOITZA ALDAKETA

Anbulatorio berria eginez, zerbitzua **eraberritu** zuten iaz eta orain egoitza modernoa du Lakua-Arriagak. Bi solairu ditu, eta aparkalekua oso handia da. Au-



rreko eraikina txiki geratu zen, eta egindako aurrerapenarekin oso gustura daude bertako profesionalak. Lehen kontsulta gelak partekatu behar zituzten, orain, aldiz, gela kopurua handitu da. Bigarren solairuan, informatika gelarekin batera, bileretarako edo prestakuntza saioetarako egokitutako gelak daude, **argitsuak** eta zabalak.

BEHARREI EGOKITUTAKO ARRETA-ZERBITZUA

Bertako profesionalak beti egon dira arduratuta herritarren aurrez aurreko arretak duen garrantziaz. Horretarako arreta-zerbitzurako sistema indartu dute. Antolatze modua antzerakoa bada ere, pertsonen zuzentzen zaien profesional kopurua bikoiztu egin da. Bi pertsona telefono deiez arduratzen dira eta lau zuzeneko arreta bideratzeaz. Espazioaren **zabaltasunak** ere aukera gehiago ematen die pertsonengana ahalik eta modu eraginkorrean zuzentze-

ARRETA HOBEA

Osasun-zentro berrian arreta-zerbitzua zeharo eraldatu dute erabiltzaileen mesedeetara. Eskumatik hasita, bigarren, Ana Isabel Hernandez, Arreta zerbitzuko arduraduna.

ko. Hori horrela izanik, zerbitzua arinagoa da eta lehen sortzen ziren ilarak **ekidin** dituzte. Sistema berriak hurbileko zerbitzua emateko aukera zabaltzen die, eserita eta banan-banan egiten delarik. Modu horretan, komunikatzeko lasaitasuna eta intimitatea dute erabiltzaileek.

Ana Isabel Hernandez bertako arreta-zerbitzuko arduraduna da eta lan dinamikaren berri eman digu: "Unean sortzen diren beharretara egokitzen saiatzen gara". Hala, leku aldaketak eta zerbitzu sistema indartzeak aurrerapauso handia ekarri dutela azpimarratu dute.

Argitsu: *Luminosola.*

Barruti: *Distrito, circunscripción.*

Ekin: *Evitar.*


Eraberritu: *Renovar, reformar.*

Oihartzun: *Repercusión, eco.*

Zabaltasun: *Amplitud.*



LEMOIZ BIZKAIKO URIBE KOSTAKO ESKUALDEAN DAGOEN ELIZATEA DA. JATORRIZ ELIZATEAREN ERDIGUNEA URIZAR AUZOA IZAN ZEN, ETA GERORA ANDRAKA ETA ARMINTZA MUGETARA ZABALDU ZEN. GAUR EGUN ARMINTZA AUZOAN BIZI DA JENDE GEHIEN. ARMINTZA KOSTALDEAN KOKATUTA DAGOEN AUZOA DA, KAUKO **LURMUTURRA** ETA GAZTELU HAITZEN ARTEAN. UZTAILEAN, KARMENGO AMAREN JAIAK OSPATZEN DITUZTE ARMINTZAN.



Lemoizko herriburua Urizar auzoa da, **Goi Erdi Aro** garaikoa. Barnealdetik kostaldera doan bidearen eta Andraka errekaaren artean kokatzen da Urizar. Udaletxea, herriko parrokia eta beste hainbat administrazio eta zerbitzu Urizarren daude.

Herriak eskaintzen dituen toki interesgarrien artean hainbat eliza daude. Horietako bat Andre Mariaren eliza da, XII. mendearen lehenengo erdialdekoa. **Habearte** bakarra du, **gangarik** gabe eta hiru aldare. Elizaren aurreko aldean dorre zabala du, errenazimendu estilokoa, XVI. mendeko dena. Lemoizko elizak hiru basiliza ditu: bata, San Tomasen izenean; bestea, Maria Magdalenaren izenean; eta, hirugarrena, San Mamesen izenean.

Lemoiz landa eremuko elizatea izanik, baserriek eta tradiziozko kulturari atxikitako elementuek osatzen dute bere ondare arkitektonikoa. Baserriek dagokienez, XVI. mendearen azken aldera eraikitakoak aipa daitezke: Martiñena (Andraka) eta Ugarte-goiko. Azken honek **estalki** handia du, teilatua alde bietara, eta erdiko tantaia eta egitura zurezkoa du.

Armintza kostaldean kokatuta dagoen auzoa da. Kauko lurmuturraren eta Gaztelu haitzaren artean kokatuta dago, horregatik **denboraleetatik** babesteko toki aproposa izan da itsasontzietarako. Arrantzale tradizioa izan duen auzoa izan da urte luzeetan, baina gaur egun bizileku eta aisialdirako tokia da. San Tomas basiliza dago bertan; garaiko eraikuntza da, eta basiliza zaharra eraikia zegoen tokitik metro gutxira dago.

Uztailaren 16an, Karmengo Amaren jaiak ospatzen dituzte Armintzan. Karmengo itsas prozesioa egiten dute egun horretan, eta, gainera, jaietan, Txapel Reggae izeneko reggae musikaldea ospatzen dute.

Uztailaren 31n Hegaluzearen Eguna ospatzen dute, eta urrian San Tomas jaiak.

Denborale: *Temporal.*
Estalki: *Cubierto.*
Ganga: *Bóveda.*
Goi Erdi Aro: *Alta Edad media.*
Habearte: *Nave.*
Lurmutur: *Cabo.*
Senaia: *Ensenada.*

ERREKA ETA ERROTAREN ARTEAN

Udalerrriaren ardatz nagusia Andraka erreka sortutako ibarra da, herrian bertan jaio eta itsasoraino doana. Ibarraren alde bakoitzean badira 200 metrotik gorako mendilerroak. Gainontzeko lurrak menditsuak dira, garaiera gutxiak baina udalerrira inguruko herriez bakartzen dutenak. Udalerriko punturik garaiena Urizar mendia da, 290 metrokoa. Bestetik, kostaldea labarrez, **senaiaz**, hondartza txiki eta harritsuak eta bestelakoez josita dago. Beste mendi aipagarri bat Ermua (289 m) da, kostaldean dagoena. Esan bezala, udalerrriaren ardatz nagusia erreka izanda, aipagarriak dira errekan zehar agertzen diren errotak. Bi kilometro ubidean hamaika ur jauzi agertzen dira. Hauek dira errota nagusiak: Armintzekalde, Dendariena, Artekoerrota, Aurtenekoerrota, Errotatxu, Agirrekoerrota eta Gibelarrota; eta burdinola bi ere badaude: Olatxu eta Olalde.



Euskaraz
bai sano!

Ongi etorri.
Laguntzea nahi?



**Ikur hau ikusten
duzunean egizu
euskaraz sano!**


Donde veas este símbolo podrás
ser atendido en euskera.



Osakidetza



euskaraz
bai sano!



Osatuberri

UDAKO POSTAL LEHIAKETA

Lehiaketan Osakidetzako profesional guztiek parte hartu dezakete. Postala euskaraz idatzia izan beharko da eta mezua originala.

Postalak bidaltzeko epea: uztaila-abuztua.

Helbidea: Osatuberri aldizkaria. Araba 45.
01006 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Postalik hoberenak argitara emango dira.

Bi sari banatuko dira:

1. saria: bidaietako liburuak, mapak eta aldizkariak.
2. saria: euskara arloan trebatzeko argitalpen sorta.

Irabazleak aukeratzekoan idatzitakoaren edertasuna, orijinaltasuna baloratuko dira batik bat.

Anima zaitetze eta parte hartu!

Parte-hartzaile guztiok opari bat jasoko duzue.

